

uk

65. zenbakia / 2004. uztailak 11





Eli Ingunza,
lehen saria Bizkaiko ardi
ustategien atalean

BERDINAK
EREMU
GUZTIETAN

Baserri-munduan, zein hirikoan, eremu guztietan, emakume eta gizonen arteko aukera berdintasuna bere emaitzak ematen ari da. Berdintasun-hazia ereiten eta pertsonen duintasuna eta gaitasuna, sexua kontuan hartu gabe, aintzat hartzen duten baloreak lantzen jarraitzen badugu soilik lortu ahal izango dugu emakumeak eta gizonak berdinak izango direneko gizarte baten behin betiko uzta. Har dezagun berdintasunaren bidea.

Emakumeak eta gizonak,
maila berean



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

Non zer

- 4. GU GEU.
- 5. IRUDIA. Poltsa buruan. Asier Mentxaka.
- 6. PLAZA. Oporrak, Maddi Albizu. Leihatila, Josu Esnaola.
- 7. LEHEN ETA ORAIN. Algortako San Nikolas aldapa.
- 8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
- 10. HERRIZ HERRI. Getxo 10. Leioa 14. Erandio 16. Sopela 18. Berango 20. Gainerako herriak 21.
- 23. AGENDA.

SAKONEAN

- 24. ALBUMA. Alango auzokoak. Asier Mentxaka.
- 26. ERREPORTAJEA. Sorosleak. Unai Brea.
- 28. ARGAZKIA. Gasero erraldoi bat Areetan. Fatima Díez.
- 30. BERBETAN. Alex Ubago. Unai Brea.
- 34. FOTOGRAFIA. San Juan metak. Asier Mentxaka eta Bubu.

KULTURA ETA AISIA

- 38. ZINEMA. Oskar Fernández-en zutabea eta sarean lor daitezkeen euskarazko zenbait film labur.
- 39. MUSIKA. Txalaparta jaia Uribe Kostan. Diskoen erreseinak.
- 40. LIBURUAK. Esti Ezkerraren zutabea eta Lertxundiren azkena.
- 41. KOMUNIKAZIOA. Bilboko Radio Tropical.
- 42. SAREAN. Internet, Iker Merchanen eskutik.
- 43. ELKARRIZKETA. Itziar Laka. Unai Brea.

EUSKARAZ

- 44. AKABUKO PUNTE. Juan Mari Zelaia, Urtzi Iglesias. Xabi Bilbaoren "Gure berbakere" zutabea.
- 46. URIBERTSOAN. ALBEkumeak eta gainera Peru Vidalen bertsoak. Algortako Bertsolari Eskola.

AMAITZEKO

- 48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoen errezeta eta Itsaso Aranaren ardoaren gaineko lezioa. Non jan bat? Esaterako La Kala tabernan.
- 50. HOROSKOPOA.
- 51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
- 52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
- 53. FLASH BACK. Getxoko nagusi-etxearen alde, 1959. Bittor Egurrola.
- 54. AITORMENAK. Anabel Arraiza. Jon Urresti.

Azaleko argazkia: Asier Mentxaka (Arrigunaga)



30 Alex Ubago



34 San Juan metak

Oso gazterik hasi zen abestiak konposatzen; hamabost urteaz egin zuen lehen kantua. Ereaga hondartzan San Juan bezperan eman zuen kontzertuan beragaz egon ginen.



12 Ekain Larrinaga



43 Itziar Laka



49 La kala jatetxea



54 Anabel Arraiza



zure **dirulaguntza** behar-beharrezkoa dugu!

Boluntzarreta

BBK 2095 0121 10 9102483676
sartu zure laguntza gure kontu zenbakian

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta
HELBIBIDEA: Arnezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48991 GETXO
e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kubxa 171
Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Aritz Bregel
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Xabier Bilbao
KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Jon Urresti, Urtzi Iglesias, Bittor Egurola, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Algotarko Bertsolari Eskola, Iker Merchán, Esti Ezkerra, Oskar Fernández, Josu Esnaola, Xabier Buerbelosa, Jabi Zabala, Berborts Erandion Euskaraz eta Bizara Legean Euskara Elkartea
MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)
HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / INPRIMATEGIA: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiaetzea, baimen barik, erabat galarazirik dago
© Boluntzarreta
Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarten Topaguneko parteidea da



Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du



TOPAGUNEa



GETXOKO UDALA

Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du



Leioako Udala

Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuko dirulaguntza jaso du



BERANGOKO

Aldizkari honek Berango Udalaren dirulaguntza jaso du



Erandioko Udala

Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du



Aldizkari honek Erandioko Berborts Euskaraz elkarlanean laguntza jasotzen du



■ Bizkaiko Foru Aldundia ■

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du



Fundación Grupo Eroski

KONTSUMITZAILEAREN TONTA



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du

UK

Behar beharrezkoak ditugu zuen dirulaguntza!

BBK2095 0121 10 91 02483676

Boluntzarreta

gugeu

Ale honetan

Oporrak hartzeko beharra gero eta gehiago sentitzen dugu erredakzioan irakurle. UK berriak plazaratzea gero eta gehiago kostatzen ari zaigu eta gogoan oporrak baino ez ditugula dihardugu beharrean uztail sargoritsu honetan. Oporren gainean hain zuzen ere, Maddi Albizu soziologo algotarrak idatzi digun gogoeta irakurtzea gomendatzen dizugu (ikus. 6 orrialdea).

Udaren hasierarekin batera, ez dakigu zergatik, bizitza atzera pizten dela ematen du eta zuenganatzen ahalegintzen garen makina bat gauza gertatzen dira. Ezin guztia kontatu baina asko bai. Esaterako, Alex Ubago kantari ospetsuak kantaldia eskaini zuen leporaino beteta zegoen Ereaga hondartzan. Ez da gure abeslari gogokoena baina mugitzen dituen pasioak ikusita, bera ezagutzea merezi zuela erabaki genuen. Udako lehenengo egunean, San Juan bezperan hain zuzen ere, beragaz egon ginen. Egun berean gure argazkilariak zoratu genituen eskualdeko San Juan su metak argazkitan jaso nahi izan genituelako. Herri herri, hona eta hara ibii ziren “sanjuanaden” bila. Lan ederra egin zuten (ikus 34. orrialdea). Hona eta hara ibili diren beste batzuk Getxon gaztetxea abiatu nahi duten gazteak izan dira. Ez dute zorte onik ez, eta oraingoz behintzat kale gorrian segitzen dute. Konponduko da hau inoiz? Konponduko dira inoiz agintariak eta gazte hauek? Gazteen odol beroa eta legearen hoztasuna talka egiten segituko dute etengabean?

Bestetik, ale honetan gure ohiko atalak txukun betetzen saitu gara UK-ko kazetari fin eta trebeok. Eta makina bat berri, pertsonaia eta istorio interesgarriak josi dugu ale hau. Esaterako: Itziar Laka hizkuntzalaria elkarriketatu dugu, Ekain Larrinaga inmigrazio teknikaria, Radio Tropicalen egon ginen...


Amaitzeko irakurle, jakizu ohi bezala abuztuan UK-k ere oporrak hartuko dituela. Hala ere, aurretik beste ale mamitsu bat jasoko duzu hilaren akabuan zure etxean. Hura osatzeko indarririk geratuko ahal zaigu? Hala bedi! Ordura arte, goza ezazu urteko egunik luzeenak eskaintzen dizkigun uztail hau.

UK-ko lantaldea

gutunak

Atal honetan irakurleen iritziak, eskaerak, gutunak argitaratu nahi ditugu. Zuon testuak bidaltzeko: uk@aldizkaria.biz • Faxa: 94 491 58 31

matematika aplikatua



Goizero erosi > berria



BERANGO, 2004-07-01

Poltsa buruan / Jantzera bitxia izan arren, ziur ez zaigula inori burua babesteko modu hau ezustekoa egiten, mila aldiz ikusita edukiko dugu-eta, orrazkera, batez ere egin berria eta ondotox ordaindua bada, euritik babestu beharra dutenengan. Nor daki, baina, guztiok ere laster geure buruak ahal den moduan babestu beharrean egon beharko ote dugun, Kyotoko kontuak eta hitz politak gora-behera, airera lasai bidaltzen gabiltzan zikinkeria guztietatik: laster denok ere, *poltsa buruan ibili munduan!* / Argazkia: Asier Mentxaka

Leihatila

> Josu Eснаоla

Portugal

Futbola dela edo Silveiraren iruzki-nak direla, kontua da azken aldian Portugal modan jarri dela gure arte-an. Eta neuk ere olatu hori aprobet-xatu nahi dut nire gogoan iltzaturik neukan Lisboa eta aurtengo aste santuko oroitzapenek osatutako hiria, edo hobeto esanda, hiriaren saudadea, hona ekartzeko. Calçada da Gloriako funikularra eta San Pedro de Alcantarako miradou-roan itzalpean emandako arratsalde-ak; Mosantos parkearen bestaldeko txabolak; Rua da Rosa eta ingurue-tan oraindik ere geratzen diren taberna-tabernak; Largo do Carmon, diseinuzko aukietan jarrita, kartetan ari diren gizonak; Calçada da Bica erdian dagoen pelukeria; Galiza lusofona dioten pintadak; Rua dos Douradoreseko jatetxe begetariano-an bazkaltzen ari den punkia; Conde de Almoesterreko bide bazterreko putak; Helena Almeidaren argazkiak, eta Castello-Lopesenak; Santa Luziako miradouroan jubilatutaldea futbolaz berbetan; Rua dos Anjos-en jonki saldoa kale erdian txutatzen; Graçako miradouroa eta bertara daramaten eskaileretako grafitiak; Rua do Sao Pedroko arrain saltzaile-ak Alfaman; Largo dos Trigueiroseko umeak jolasean eta leiho atzetik andre atzeratua umeei begira; Katia Guerreiroren fadoak, *meu amor , eu tenho medo de te contar o segredo que tengo dentro de mim...meu amor, eu sou assim.* 4

photoshop > kartel arraroa



IRITZIA

Oporrak gainean dauzkagu. Hain zuzen ere gogoetatxo bat eskatu diogu oporren gainean Maddi Albizu soziologo algortarrari.

Atsedena kontsumoa eta lana

Laneko buruhausteak ahaztu eta ondo merezitako oporren atalaurrean gauden honetan gogoetatxo bat proposatu nahi dizuet: oporren beharraren ingurukoa hain zuzen. Nire lanbidea-rekiko grinak (soziologoa naiz) behin eta beriz bultzatzen nau inguratzen nauden ororen gainean irakurketa soziologikoa egitera. Oporrak azkenal-di honetako gogoetagai bihurtu dira niretzat.

Ohartuko zineten maiatzetik uztailera bitarteko “igogailuko” ia elkarrizketa guztiak, hau da, normalean eguraldia edota lana hizpide duten fundamentu handirik gabeko elkarrizketa horiek, honako esaldi honekin hasten direla: “aizu, eta oporretan nora zoaz?” Sasoi honetako elkarrizketen beste osagai ezinbestekoa hau da: “aizu, oporrak behar ditut, lur jota nago-eta”. Zer esan nahi du honek guztiak? Bada oporren beharra munduko gauzarik naturalena bailitzan barneraturik daukagula, naturala baino gehiago behar kulturala dela ohartu ere egin gabe.

Munduan ehunka milioi lagun bizi dira oporrik gabe. Lan eta lan egiten dute etengabe oporren esperantza usaindu ere egin barik. Eta zer? Ezer ez. Guk, aldiz, uztail aldera buruak lehertu beharrean dauzkagu (edo hala uste dugu, edo hala sinestarazten diogu geure burua-ri). Oporrak hartu eta ahalik eta urrunen joan

ezean ikaragarritzko depresio batean jausiko garela dirudi. Are gehiago, asko eta asko depre-sioan jausiko dira oporrik hartzen ez badute.

Beharra kulturala dela diodanean ez diot inondik inora garrantzirik kendu nahi, ezta kulturala izategatik faltsua ala gezurrezkoa denik esan nahi ere. Erlatiboa dela besterik ez dut adierazi nahi. Gure kultura mendebaldearre-an oporrak beharrezkoak, hil ala bizikoak, direla

“Kontsumo gizarteak oporrak behar-beharrezkoak ditugula sinistea behar du”

funtzionala da oso. Honek esan nahi du hori sinistea funtzio zehatz bat betetzen duela gaur-ko gizarte-an, kontsumo funtzio bat zehazkiago. Izan ere, oporraldia eta lanaldia, atsedena eta ahalegina bezalaxe, aurkako kontzeptuak direla sinistea gogoko dugun arren txanponaren bi alderdiak besterik ez dira. Lana eta kontsumoa-ren arteko lotura estua ikusten lehenetako bat Henry Ford izan zen XX. mendeko hasieran. Berea da esaldi famatu hau: “amerikar orok ford bat eduki dezake, beti ere [kotxea] beltza bada”. Ford berehala konturatu zen bere lantegietan ekoiztutako ibilgailuak saltzeko langileen solda-tak igo behar zituela, langile hauetxek izan behar baitziren lantegitik irten eta ford-en lante-gietan ekoiztutako kotxeak erosiko zituztenak.

Barkatu urrunegi joan banaiz nire argu-mentazioa biribiltzeko, baina turismoaren sekto-rea Euskal Autonomia Erkidegoan zortzigarren jarduera ekonomikorik garrantzitsuena da. Iaz gurera etorritako milioi eta seiehun bisitariek 173 milioi euro gastatu zuten guztira (41 milioi ingu-ru jatetxeetan!). Kontsumo gizarteak guk opo-rrak behar-beharrezkoak ditugula sinistea behar du. Guretzat atsedena dena, objektiboki kontsu-moa da, eta, aldi berean, kontsumoa dena beste batentzat ekoizpena, hau da, lana da. Dena dago lotuta, Henry Ford-en katearen moduan. Ondo pasa oporretan eta asko gastau. 4

Maddi Albizu (soziologoa)



Iraganez doa denbora* beti / ALGORTAKO SAN NIKOLAS ALDAPA

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.



93 pertsonak parte hartu zuten 2003an Enplegua Indartzen-eko ikastaroetan

ekimena > Enplegua Indartzen-eko partehartzaile diplodumadunak

Behargintzak Enplegua Indartzen programaren barruan antolatzen dituen ikastaroetan parte hartu duten kideek diplomak jaso zituzten ekainaren 21ean. Ikastarook burutu dituztela egiaztatzen duten agiriak 93 lagunek hartu zituzten. Behargintza Enplegua Sustatzeko Udal Zentrua da, eta Enplegua Indartzen Plus programa udalaren, Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Europako Giza Funtsaren esku dago. 2003an eskainitako ikastaroetako partehartzaileetatik ia 50 lanpostua daukate gaur egun, eta aipatzekoa da aurtengo 93 partaideetatik 73 emakumezkoak izan zirela. m



Partidetan partu hartu zutenek Euskal Selektzioen ofizialtasunaren aldeko alkarrikapena egin zuten

jendea > Algortako Mamarro futbol taldea



Ia 65 urte eta gero bazkaltzeko elkartu ziren Mamarro futbol taldekoak. Goiko argazkian: Alberto Dominguez, Dani Diaz, Ignacio Bastardo, Pablo Atxurra, J. Maguregi eta Joaquin Diaz



Mamarro futbol taldeko sortzaileak dira, 1942 La Unión futbol zelaian (Algorta, Sener enpresa dagoen lekuan). San Agustineko txapelketa irabazi zutenekoa, 14-15 urte zituztenekoa. Mamarrokoek 10 pezeta bana jaso zuten Maguregi atezaina Athletic-era joan zenean. Goian: Andres Intxausti (+), D. Diaz, Txiki Butron (+), P. Atxurra, I. Bastardo, Jabier Mota. Azpian: Maguregi, I. Dominguez, Jabier Amezaga, Roman Intxaurtieta (+), eta Alberto Dominguez. m

kale izendegia > Gabriel Ramos Uranga



Bilbon jaio zen arren, Gabriel Ramos Uranga artista Uribe Kostan bizi izan zen luzaroan; hori dela-eta, Getxoko Andra Mariko kale batek bere izena dauka. Aparejadore ikasketak Bartzelonan egin ostean, San Fernandoko Arte Ederretako eskolan izena eman zuen, baina Cuencan ikasi zituen bere ibilbidean garrantzi handia izango zuen grabatuaren teknikak. 1966an bere bakarkako lehenengo erakusketa egin zuen Bilbon. Geroztik, hiri askotan erakutsi zituen bere lanak: Donostia, Madril, Franckfurt, Kolonia, Heidelberg eta Nurenberg, besteak beste; Lekeition ere Gabrielelek berak egindako freskoak ikus daitezke. Egile honek anatomia ederki menderatzen zuen, eta grabatua, litografia edo beste teknika grafikoak zuzen erabiltzen zituen. Ramos Uranga 1995eko udan zendu zen, 56 urte zituela. m



BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa Kizol moda

350 m²

KIROLERAKO GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO KIROL DENDA

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA

48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

Legealdiko Plana 2004-2007

Datozen 4 urteetarako **egitasmoak eta helburuak**, horiek **nork bideratuko** dituen, eta beroiek **gauzatzeko ekintzak eta aurrekontuak** zehazten dituen plana plazaratu du Getxoko udalak

Getxoko Udal Batza osatzen duten EAJ, EA eta EB alderdien hirukoak, udaleko langile eta funtzionariokaz batera 2004-07 Legealdiko Plana prestatu du eta plazaratu dute. Arduradunen esanetan, zelako Getxo eraiki gura duten finkatzeko eta hura gauzatzeko lantresna litzateke Plana. Barruan hartzen ditu urte amaiera arteko eta ondorengo hiru urteetarako udalak dauzkan egitasmoak eta helburuak.

Legealdi Plana 2004-2007 plazaratu berri du Getxoko udalak, eta Iñaki Zarraoa alkatearen esanetan, Getxo da era horretako kudeaketa sistema aurreratu bat egokitu eta bereganatu duen udalerrri apurrenetakoa Estatuan, eta *“dokumentu horrek jasotzen duen konpromiso maila hartzen duen udal bakarra”*.

Alkateak azaldu duen legez, Plana sortzeko arrazoia garbi dago: *“Plana lantresna moduan erabiliko dugu: helburuak gauzatzen joateko, alde danen ahaleginaz erakundea norabide bakarrean enamateko, arrekontuak helburuen arabera prestatu ahal izateko, kudeaketa osoaren jarnaipean bat egin ahal izateko, eta datozen urteetan eraman nahi dugun politikaren berri herritarrei emateko”*.

Beraz, Legealdi Planak Getxoko udalak 2004-07rako dauzkan egitasmoak batzen eta zehazten ditu, noiz garatuko diren, udaleko zein alorrek garatu behariko dituen, horiek gauzatzeko betebeharrak eta egin beharreko ekintzak ere finkatzen ditu, eta egitekoak aurrera erama-



Egoera zailean dauden gizarteratzea eta bizikidetzak hobetzea du besteak beste helburu plan honek

teko beharrezkoa litzatekeen aurrekontua ere egokitzen du, kasu askotan.

Lau ardatz nagusi

Legealdi Planaren bitartez, bizi-kalitatea hobetzeko herritarrei zerbitzuak eskaintzea, desberdintasunak gainditzea eta bizikidetzak

«Lau ardatz nagusi, 22 helburu estrategiko, eta 300 bat ekintza aurreikusten ditu»

erraztea da udalak erditsi gura lukeen helburua. Horretarako lau ardatz estrategikoren arabera dago banatuta plana.

Lehenengoak egoera zailean dauden gizarteratzea, bizikidetzak hobetzea eta elkar-tasuneko jarduerak gauzatzea dauka helburu. Bigarrenak udalerriaren garapen har-

moniko eta orekatuaren aldeko eginbehar-rak batzen ditu. Hirugarrenak Kultura eta Kirolaren bikaintasunaren alde egingo du. Eta laugarrenak kudeaketaren bikaintasuna bilatuko du. Lau ardatz hauek 22 helburu batzen dituzte, eta horiek bete ahal izateko, denetara 300 bat ekintza aurreikusten ditu Legealdiko Planak. m

LABURREAN

- **Legealdi Plana:** udalak aurrera eramango duen politika gauzatzeko egitasmoak, helburuak, ekintzak eta zenbait aurrekontu zehazten ditu.
- **2004-2007** bitarteko epean erdietsiko lirateke Planak zehaztutakoak.
- **Lau ardatz estrategiko,** 22 helburu estrategiko eta 300 ekintza hartzen ditu Planak barruan.

Gaztetxeak, zabalik?

Erromon eta Algortan gaztetxe berriak zabaldutuz gero, **bat dago** zutuniki



Ertzaintzak segituan kanporatu zituen Algortako Urgull kaleko egoitza okupatu zuten gazteak

Ekain amaieran Getxok gaztetxe berri bi zeuzkala zabaldutuz gero, Ateak zabaltzen lehenengoa Erromoko gaztetxea izan zen, eta handik egun gutxira Algortak ere Aixerroten gaztetxe berria zeukala jakin genuen. Alabaina, Algortako gaztetxearen ateen ez zuten luzean zabalik iraun, izan ere Getxoko udalak gaztetxea lekutuz gero eraikina berehala eraitsi zuen-eta. Baina hainbat gazte hurrengo egunean Urgull kalean hutsik zegoen aurreko Kultur Etxeko egoitza okupatu zuten. Bestetik, Erromoko gaztetxea garai batean ospitale izandako udaletxearen jabego den eraikin huts batean dago. 100 bat gazte jardun dute eraikina garbitzen eta

atontzen, eta eurek dioskuen legez, musika lantegiak, antzerkiak, hitzaldiak, mahai-inguruak eta hainbat ekintza antolatzeko asmoa daukate gaztetxean, eta irakurgela bat ere sortu gura dute. Gaztetxekoen esanetan, *“gaztetxea proiektu serioa da, gazteok gure oraina eta etorkizuna eraikitzeak daukagun eskubidea bermatzeko bitarteko ezinhobe da”*.

Zabalik jarraitzen ete dute?

Lerrook irakurtzen zabiltzan bitartean, ezin jakin Erromoko gaztetxeak Santa Eugenioan zutuniki jarraitzen ote duen, eta ezin igarri Algortak gaztetxe berria daukan ala ez.m

TXOTXONGILO KOPURU HANDIENA GETXON

Ekainaren 19an UNIMA Euskal Herriak (Txotxongiloaren Nazioarteko Batasuna) antolatu zuen Txotxongilo Eguna arrakastatsua izan zen guztiz. Areetako Geltoki plaza jendez eta txotxongiloz bete zen, eta antolatzaileek zeukaten erronka nagusiari ezin hobeto erantzutea lortu zuten: sekula mundu osoan batu den txotxongilo kopuru handiena biltzea Getxon. Hainbat mota eta ezaugarriko 704 txotxongilok bat egin zuten ekainaren 19an Areetako Geltoki plazan. Aurreko errekorra 463 txotxongilotan zegoen, eta elkarretaratzea Ingalaterran egin zen.

TERRAZEN ARAUDI BERRIA DAUKA GETXOK

Getxoko udalak erabilera publikoetan terrazak eta kanpoko barrak (jaietan) jartzeko araudi berria sortu du. Eusko Jaurlaritzaren arautegi berri batera egokitzeko osatu du udalak araudi berri hau. Izan ere, udal arduradunek adierazi duten moduan, terrazak eta barrak batez ere hiri barruko inguruetan irisgarritasun baldintzetara egokitzeko egin da araudi berria. Araudiak batzen dituen betebeharren artean daude, besteak beste, terrazak eta barrak eraikinetatik 2m-ra jartzea, eta mahaiak eta aulkak udalak mugatutako guneeetan bakarrik jartzea. Bestalde, leku jakin batzuek gainontzeko betebeharrak batzuk ere edukiko dituzte.

UDALBILTZAK BATZARRA EGIN ZUEN ALGORTAN

Udalbiltza berrantolatzeko batzarra Arriaga Antzokian egiteko asmoa zegoen, baina azken orduan Bilboko udalak “arrazoi teknikoak” zirela eta, ez zuen batzarra Arriagan egiteko baimenik eman. Horren ondorioz, ekainaren 26an Getxo Antzokian egin zuen Udalbiltzak berrantolatzeko batzarra. Bertan bildu ziren Euskal Herri osoko udaletako ezker abertzaleko hainbat ordezkari.



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- 1970az geroztik altzariak diseinatzen.
- Orain ere, armairuak neurritan.
- 200 m²ko erakusketa berria: Telletxe 4 (T: 94 460 71 62)

Zatoz!

Telletxe 15 • Algorta • T: 460 42 44

Folklore jaialdia

hilaren 21etik 23ra

Uztailaren 21ean hasi eta 23an amaituko den Nazioarteko Folklore jaialdian Poloniako, Lituaniako eta zelan ez euskal dantzek (Itxartu taldea) osatutako ikuskizunez gozatzeko aukera egongo da. Aurtengoa Nazioarteko Folklore jaialdiaren XX. aldia da, eta zenbait herrialdetako dantzez gozatzeaz gainera, jantzi edo arropa tradizionalak eta soinu eta musika ezezagunak ikusi eta entzuteko aukera izango da Getxon. Sei dantza ikuskizun eskainiko dira guztira hiru egunean zehar Algortako Biotz-Alai plazan. Dantzariak gaueko 22:00etan hasiko dira lanean, eta sarrera doan da. ^m



LETREK TERRAZAK HARTU ZITUZTENEOA

Aurten ere liburuak kalera irtengo dira, kaletarren are eta eskurago dauden lekuak bere eginez. Udako Liburutegiek getxoxtarrei kalean bertan irakurtzeko aukera eskaintzen diete, berriro ere. Letren Terrazak izenez ezagutzen diren leku hauetan 2.000 liburutik gora egongo dira irakurlea noiz hurbilduko zain. Algortako Geltoki plazan, Andra Mariko Sarri plazan eta Areetako Geltoki plazan lekutuko dira guneko, eta ordutegi aldetik, goizetan 12:00etatik 14:00etara, eta arratsaldeetan 17:30tik 20:30ra izango dira abian, uztailaren 13an hasi eta abuztuaren 29ra arte. Getxoxtarrek ez dute, beraz, liburutetara hurreratu beharrik edukiko, liburuak hurbilduko dira terrazetara. Ez dago ez irakurtzeko aitzakiarik.

Ekain Larrinaga > Getxoko Udaleko Inmigrazio Teknikaria

“Etorkinek ez dute lan aukeren tartaren zatia gutxitzen, alderantziz, urtero tarta handiagoa da, eurei esker ere”



Harremanetarako: 94 466 01 30 edo Gizarte Zerbitzuak: Martikorena kalea 16, Algorta

Ekain Larrinagak hiru bat aste darmatza lanean Getxoko udaleko Inmigrazio Teknikari legez. 28 urteko getxoxtar hau Zuzenbidean lizentziaduna da, eta Madril aldean ibilia da Aholkularitza Juridikoko esparruan beharrean. Marko Juridikoa oso gogorra bada ere, EAEn lanerako egoera ezin hobean gaudela dio.

—Zein da Inmigrazio Teknikarien egitekoa? —Gure eginbeharra ez da etorkinei harrera zuzena egitea, udaleko alorrei laguntza eta aholkularitza ematea baizik, alor guztietan inmigrazioaren fenomenoaren barneratzea. Inmigrazioa ez da Gizarte Zerbitzuetako alorrari bakarrik dagokion egitekoa, gizarteko alor denetan dauka eragina. Hiru ekin-tza-esparrutan dihardugu: Eusko Jaurlaritzako politikagaz koordinazioan (Inmigrazioko Euskal Planaren bidez), udaleko alorren arteko koordinazioan eta gizarte bitartekari eta etorkinen elkar-teakaz lanean. Helburua udalek inmigrazio egitasmoak garatzea da. Bestetik, Inmigrazioko Euskal Planak azaltzen duen *hiritartasun inklusiboa* adiera berria gizartearen hedatzen ahalegindu behar dugu. Egia esan, Plan horrek beste erki-degoek ez duten aukerak eskaintzen dizkigu.

—Zelan bizi dira etorkinak Getxon? —Getxoko biztanleetan %3,4 etorkinak dira, 2.900 bat herritar. EAEko batz bestekoaren gainetik gaude (%1,5), eta Bizkaian bigarren postuan. Baina juridikoki ez da berdin Europar Batasuneko etorkina izan ala kanpoko. EBeko etorkinak kenduta, ehunekoa %2,6 da. Kolonbiarrak eta ekuadortarrek osatzen dute multzo handiena, eta gero filipinarrek; gazteak eta lan egiteko adinean gehienak. Gure eginbeharra bizikidetzaren ereduak sortzea da, eta ez leku berdinean bizi eta elkarregaz hartu emanik ez daukaten hiritarren ereduaren indartzea. Eta etorkinei lan esparrua bakarrik ardu-

«Inmigrazioko Euskal Planak besteez ez duten aukerak ematen dizkigu»

ra zaielako ideia baztertu behar dugu, alde garrantzitsua da, baina barruan hartu dituen gizartearekiko hartuemanak ere garrantzitsuak dira. Jende askok uste du urtero etorkinek lan aukeren tartaren zati gero eta handiagoa hartzen dutela, eta ondorioz, bertakoentzat lan aukerak gutxituz doazela. Uste ustela da, tarta urtero handituz doa, etorkinek ere tarta hori handitzen laguntzen dutelako: Gizarte Segurantzaren ordaintzen dute, PFGZ ... ^m

Arraunlariak, non dira? Algortako Arraun taldea arraunlari bila



Gazte gehiago etorri ezean laster kirol hau gure udalerrian hil egingo dela esan digute arraun taldekoek

Arraunlari bila dabil Algortako Arraun taldea. Halakorik aurkitu ezean, taldeko presidente Igor Bilbaok dioen legez, “*arrauna hil egingo da Algortan*”. Udako lehiaketetarako ez daukate trainerurik, eta irailera begira arraunlari berriak behar dituzte, denboraldia indarrez hasi ahal izateko. Haur, gazte, nagusi, gizonezko zein emakumezko arraunlari-entzako lekua dago taldean, eta era berean, hauen beharra ere badauka taldeak. 20 bat arraunlari beterrak, 9 bat seniorrek, kadete batek, iaz 6 bat

jubelinek, eta 7 emakumezko kadete eta gazte-ek osatzen dute Algortako Arraun taldea. Aulki mugikorrean bai eta aulki finkoan jarduteko aukera eskaintzen ditu taldeak, baina ez dago itsasorako giro-rik, eta ez da itsasoa ez dagoelako arraunerako. Abestiak dioen legez, Algortako *arraunlariak triste* daude, trainerurik ez daukatelako. Bogatzeko arraunlari bila dabil beraz, Algortako arraun taldea. ^m

Harremanetarako: 94 491 38 11

SURF IKASTAROAK EUSKARAZ

Bizarra Lepoan euskara elkar-teak surf ikastaroak antolatu ditu irailarako. Ikastarook 12 urtetik gorakoentzat izango dira, eta Getxoko Surf taldeak emango ditu. Irailaren 4-5ean eta 11-12an euskaraz eskainiko dira. Zabalik dago izena emateko epea, irailaren 3a arte. Ikastaroen prezioa bazkideentzat 45 eurokoa da, eta bazkide ez direnek 60 euro ordaindu beharko dute (94 491 43 57).

PUNTA GALEA TXIRRINDULARI TALDEAK LASTERKETA EGINGO DU

Punta Galea Txirrindulari taldeak urtean zehar antolatzen dituen lasterketa guztiak bertan behera uzten zituela iragarri zuen orain dela aste pare bat, baina azken orduko erabaki bat hartu du taldeak, eta San Inazioetako txirrindularitza zirkuitoaren 59. aldia edo Ricardo Otxoaren 4. omenaldi lasterketa egin egingo duela jakinarazi du taldeak. Uztailaren 31an izango da lasterketa hau, goizeko 09:00etan. Estatuko talde denek eta atzerriko lauk hartuko dute parte. Lasterketak antolatzen jarraitu ahal izateko txozna bat edukiko du zabalik taldeak egun horretako goiz osoan zehar.

UDA GETXON PASAKO DUTEN UMEENTZAKO LAGUNTZAK

Udalak diru-laguntzak emango ditu uda Getxon igaroko duten ume errusiar, bielorrusiar eta ukrainiar-ak hartu dituzten familientzat. 550 euroko dirulaguntza jasoko du halako haurrak etxean hartzen dituen familia getxoxtar bakoitzak, eta guztira 22 ume dira. Laguntza hauek umeon egonaldiak antolatzen dituzten hainbat elkar-teren bitartez bideratuko ditu udalak.

OSAEIDE? HORTZ? KLINTKA
Arantza Etxebarria

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behea eskualdean 94 94 430 76

GOIZEAN

Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Litxarreriak

Orduña Mendatea 1
T: 430 22 13
GETXO

Telletxe 13
T: 460 02 88
ALGORTA

Leioako Merkatarien elkartea

Elkarteak **4. urteurrena** ospatuko du irailean

Irailaren 27an laugarren urtea beteko du Leioako Merkatarien Elkartek. 80. hamarkadan sortu bazen ere, etenaldi luze baten ostean indar berriz atera zen 2001. urtean. Elkartea 118 saltokik osatzen dute, eta bere arduradun nagusi Jean Paul Olmosen esanetan *“azkenaldian zenbait denda itxi eta kopurua zertxobait jaitsi da”*. Ez dira garai onak merkatarientzat, izan ere, krisi txikia nabari da Leioan. Hala ere, egoera ez da herriko kontua bakarrik, *“esan daiteke oro har merkataritza arloa beheraka doala azkenaldian”*.

Merkataritza gune handiek min handia egin zuten garai batean eta gaur egun kompetentzia itzela dira. Dena dela, elkarteko kidearen arabera, *“leku hauetan eskaintzen den zerbitzu eskasa dela-eta jende asko herriko dendetara itzultzen ari da”*. Horregatik, merkatarien profesionaltasuna goraipatzen du Jean Paul Olmosek bezeroak erakartze-ko, eta ezinbestekoa da saltzaileen prestakuntza; *“dendaria izatea egunero pertsiana*



Argazkian, Paul Olmos elkarteko arduradun nagusia

igotzea baino zerbait gehiago izan behar da". Urteurrenarekin batera, hain zuzen ere, merkatarien lana hobetzeko plan orokorra aurkeztu gura dute.

Etorkizunari begira itxaropentsu ageri

dira merkatariak. Alde batetik, biztanleria gora doa etengabe eta herria hedatzen ari da. Bestetik, “herriko giroa” errotzen doa kaleetan, eta horrek *“herrian erosteko obitura indartu egiten du”*.^m



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitarra, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA • Tlf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07 • e-mail: leioa@ikastola.net • www.ikastola.net/ikasweb/leioa



**ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK**
egiten ditugu

e-mail: hirustab@euskalnet.net

Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

udondo
taberna
eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

Guillermo Bilbao > Leioako Euskal Kirol Zaleak

“Ez dira inoiz jende andana erakarriko duten kirolak izango, baina zaletasunak hor dirau”



Argazkian, Guillermo Bilbao

60 urteko leioaztar honi haurtzaroko Goierrin (Erandio) sortu zitzaion herri kirolekiko zaletasuna. Izan ere, orain Leioan bertan bizi bada ere, ezkondu arte familiako baserrian egin zuen bizitza. Elkartearen hasierako urratsak baserritarren arteko idi-probekin egin zituztela azaldu digu, *“gero, subentzioak-eta jasotzeko, nolabait legeztatzea erabaki genuen”*. Horrela, elkarre moduan 25 urte egingo dituzte aurtén.

Leioako Euskal Kirol Zaleak 50 bazkidek osatzen dute eta bi alorretan egiten dute lan. *“Alde batetik, zenbait proba eta sari antolatzen ditugu, eta bestetik, kirolariak prestatzen ditugu. Une honetan sei harri-jasotzaile gazte dauzkagu”*.

Jaietan ospatu berri den kirol ekitaldiaren antolaketaz arduratzen dira. Gainera, Bilboko Aste Nagusian ere parte hartzen dute. Eta gure herrian *“irailen Ondizen Euskadiko Harri jasotzaileen Txapelketa prestatu behar dugu”*.

Herri kirolen etorkizunari buruzko zalantzak betiko kontuak omen dira. Guillermo Bilbaok dionez, “*ez dira inoiz jende andana erakarriko duten kirolak izango, baina zaletasunak hor dirau. Gure gauza zaharrak aurrera ateratzeko beti dago jendea prest*”. Ondo pasatzeaz gain, kirol sanoa da, oso, herri kirola, eta gainera, parte hartzeko ez da dohain berezirik behar: “*zaletasuna da behar den bakarra, indarra eta teknika hartu egiten dira*”.^m


ETXEKO • ELEKTROTRESNEN • KONPON -
Lacofris, s.l. **SERVITEC**





¥ MARKA GUZTIAK
 ¥ 24 ORDUTAN ERANTZU-
 NA
 ¥ 3 HILABETKO GARAN-
 TIA
 ¥ 25 URTEZ ZURE ZERBITU

& 94 430 52 00 **Kasune, 18 • ALGORTA**

 **KURKUDI
LIBURUTEGIA**

**Euskarazko
irakurgai**

Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA
T: 944 913 402



amesti 7^{SL}

[eraikuntzak]
[etxeetako berrikuntzak]
[gremioen koordinaketa]

Kasune 9 • Tel./Fax: 94 431 98 06
48990 ALGORTA

Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Koldo Garcia Arizmendi > Erandio Bidaiak agentziako ugazaba

“Nudista bat gehiago, besterik ez naiz”

Bilbon jaio arren Koldok 26 urte darama herrian eta erandioztar ikusten du bere burua. Jendeak oso ondo ezagutzen du eta gustu-
ra dago bertan, bere herrian. 2000ko apirilean ireki zuen bidai agentzia eta bost urte darama erandioztarrei bidai ametsak egia bihurtzen laguntzen. Izan ere, Erandioko Merkatarik Elkartearen burua da orain dela urte bitik hona. Ekimen gaitasun handiko pertsona da eta herriak zein herritarrok behar dugunaren alde jardutea gustatzen zaio.

Koldok 32 urte darama nudismoa egiten, eta orain dela zazpi urte Euskal Naturista Elkar-
tea sortu zuen beste lagunekin batera. Gaur egun elkarte horretan jarraitzen du lanean eta antolatzen diren ekimenetan parte hartzen, baina bertako buru izateari utzi egin behar izan zion, lan eta denbora arazoengatik eta Merkatarik Elkartearen burua ere denez gero.

—Zergatik bidai agentzia bat?
—Lehenengo eta behin bidaiak eta bestelako kulturak gustukoak ditudalako betidanik. Kultura aberastasuna lortu eta bakoitzaren sustraiak hobeto ezagutarazteko bidea eskaintzen du bidaiatzeak. Eta zergatik Erandion? Erandio bera esnarazteko eta Erandiok bizirik dirauela adierazteko: Erandion bizi, bai eta Erandiotik Mundura joan zein Mundutik Erandiora etor daitekeela.

—Zergatik?
—Harritzekoa da, oraintxe bertan beste lau bat agentziak jarduten dute Erandion baina orain dela zazpi bat urte, ni hasi nintzenean, horko batzuegan ere jo nuen eta beraien erantzuna ezezkia izan zen: Erandio hilda zegoela esaten zidaten. Hala ere nik oso argi neukan herrian ireki behar nuela agentzia.



Argazkian Koldo Garcia Arizmendi

Orain denok atzetik datoz, baina une horretan Gheisak nigan jarri zuen konfiantza. Artea Euskal Herrian ezezaguna bazen ere 15 urte zeraman merkatuan. Enpresa gazte eta gogotsua da, turismoari buruzko ideia berriak onartzen dituen: abenturazko turis-

“Nik oso argi neukan Erandion bertan zabaldu behar nuela agentzia”

moa, naturakoa, nudismoa...
—Turismo Naturista etiketa baino zer edo zer gehiago da...
—Guk besteen lana ez dugu ukitzen, eta sarri askotan baztertu ere egiten dituzten turismo poltsak gureganatu gura ditugu. Ez dugu ohiko turismoa arbuaitzen baina berria den zerbait eskaini nahi dugu... Eta nudismoaren munduan hutsunea nabarmena zen.
—Eta Orduan Munduko lehenengo itsas-

bidaia naturista antolatu zenuen iaz...
—Horixe da. Aldaba jo dut goian bidaia horrekin. Batetik jendea harrিতa geratu delako Erandio bezalako herri batetik Mundu osoan oihartzuna eduki duen bidaia antolatu dugulako. Bestetik, jendearen harreragatik. Ideia Euskal Naturismoaren erronka izan da eta Urkiolara egindako txango batean sortu zen bi urte lehenago. Lan neketsua izan da urte bi pasatzea ontzi-enpresen atzetik proiektuak etorkizuna zeukala erakutsi nahian... Gaur egun, enpresek beraiek deitzen digute aurretengo oporraldirako zerbitzua eskaintzeko.
—Arrakasta izugarria eduki zuen. 17 herrialde-
detako jendea egon da itsas bidaian. EB, Kolonbia, Mexiko, Filipinetakoak...
—Bidaiari zaharrenak 78 urte zeuzkan eta gazteenak 30 egun baino ez. Datorren urterako naturismoari buruzko katalogo berezia argitaratuko dugu eta seguru asko itsas bidaia ere antolatuko dugu. Nudismoaren merkatua nazioartekoa da eta Erandio mapa horretan

Nondik dator Astrabudua?

Eztabaidatsua izan da gure auzo honen jatorrizko izena. Guk geuk ere ez dugu eztabaida itxi nahi, ikerketarako abiapuntuak eskaini baino. XVIII. Mendeko Bizkaiko Fogerazioak biltzen dituen Jaime Kerexetaren liburuak argibideak eskaintzen ditu gai honen inguruan.

Fogerazioak zerga eta tributuek biltzeko asmoz herriz herri egiten ziren “sukalde” erregistro edo erroldak ziren. Gaur egun pertsonen erroldak erabiltzen badira ere, XVIII. mendean etxeen erroldak erabiltzen ziren. Jaime Kerexetaren liburu horrek 1704, 1745 eta 1796ko Bizkaiko fogerazioak biltzen ditu eta ondoko etxeak aipatzen ditu “Astrabudua” izenez ezagutzen dugun auzoan.

1704koan ez da auzoko izenik aipatzen baina *Trabudua*, *Trabudua de medio*, *Trabudua delantera*, *Acha goiticoa*, *Acha de medio* eta *Acha echabarria* etxeak agertzen dira.

“Baliteke Astrabudua izena ‘Atxa’ eta ‘Trabudua’ etxeen izen batuketaren emaitza izatea”

1745ko fogerazioan “Trabudua y Acha” izenez aipatzen da auzoa. Berton honako etxe hauek agertzen dira: *Trabudua*, *Luquiena*, *Trabudua Nagusia*, *Elejaspi*, *Barrancos*, *Oleaga becoa*, *Olega goicoa*, *Berriena*, *Goiticoa*, *Acha echebarria*, *Acha echezarra* eta *Aspurua*.

1796koan berriz Astrabudua deitzen zaio auzoari eta aurrekoetan aipatu



Atxa familiaren Etxederra baserria

Trabudu eta *Acha* etxeekin batera gaur egun ondino ezagutzen diren *Alconena*, *Aspuru*, *Elejaspi* eta beste batzuk agertzen dira.

Ez litzateke bitxia beraz, Astrabudua izena “Atxa” eta “Trabudua” etxeen izenen baturaren emaitza izatea.

Izan ere, guk ez dugu eztabaida itxi nahi: bakar-bakarrik, ikerketa toponimiko Kerexetaren bilketa lanak eskaintzen dituen abiapuntua eta aukera aipatu eta iradoki. m

Iturria: Kerexeta, Jaime de. Fogueraciones de Bizkaia siglo XVIII (Estudios de etnologia y etnografia). Instituto Labayru, Bilbao, 1992

ASUKO JAIK UZTAILAREN 16 ETA 18 BITARTEAN

Futbol kanpaina amaiturik Apurtuarte Futbol taldea buru-belarri murgildu da Asuko jaiak antolatzen. Izan ere, auzoko eta bertoko elkarte zein tabernarien laguntza barik ezinezkoa izango zen jai hauek antolatzea. Jaiak barikuan hasiko dira arrastiko zortzietan kale jira batez. Geroxeago herri-sardinada egongo da, eta eguna Urgabe taldearen musikaz amaituko da. Zapatuan sukalkia, igel txapelketa eta euskal dantzak Goi-Alderekin. Gauean Egan-berriak animatuko du dantzaldia. Domekan, meza eta Udal Musika Bandaren emanaldiaren ondoren, Atxaerandio jatetxeak eskainitako luntx-az amaituko dira jaiak bazkalordua aldera.

GARMO NEGRORA ATXAZPEREN ESKUTIK

Atxazpe Mendi taldeak Pirinioetako Pantikosa inguruan dagoen Garmo Negro mendira antolatu du txabgoa uztailaren 24 eta 25ean. Izena emateko 94 467 19 01 telefonora deitu beharko da martitzenetan edo eguenetan, zazpiak eta zortzi eta erdiak bitartean.

NAZIOARTEKO FOLKLORE JAIALDIA ALTZAGA KIROLDEGIAN

Uztailaren 29an, osteguna, Nazioarteko Folklore jaialdia egingo da Altxagako kiroldegian. Dakigunez, Portugaleteko Nazioarteko Folklore Jaialdia aprobetxatuz munduko beste tokietako folklorea ezagutzeko aukera paregabeak ditugu inguruko jendeok. Horrela Erandion, arrastiko zazpitan, Hungariako Nyirseg taldeak, Eslovakiako Marina taldeak eta Bertoko Goi-Alde taldeak erakutsiko digute euren folkloreaken zati bat.



gure posta elektroniko berria

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria




ZUTARRI

TABERNA ETA KAFETEGIA

GATZARRINE, 12A LO.
(LARRABASTERRA METRO GELTOKIA)
TF: 94 676 33 17

KUX - KUX

jatetxea



Gatzarriñe, 3 / Larrabasterra
Tf: 94 676 12 13

Jai zoriontsuak

larrabasterratar

guztioi!!!

UK aldizkaria

VILLABOTAS

JATETXEA



Menu merke eta bariatuak
Espezialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

[sopelana]jaietan]

Karmengo jaiak

ate joka

Txanda orain Larrabasterrak dauka



San Pedroak amaitu berri dira eta Karmengo jaiak prest dira orain suziria pizteko

Karmengo jaiak jasoko dute Sanpedroek utzitako lekukoa. Uztailaren 15ean piztuko dute sopeloztarrek Larrabasterrako jaietako suziria, eta une horretatik aurrera jaigiroa izango da herriko kaleen ugazaba.

Eguenean hasi eta domekara arte Karmengo jaietan murgilduta ibiliko dira haur, gazte eta nagusi. Lau egunetan zehar jolasak, musika, lehiaketa gastronomikoak, kirol txapelketak eta abarrak egongo dira herrikoen gozagai. Aipatzekoak dira, besteak beste, arku-jaurtiketa erakustaldia uztailaren 5ean, umeentzako *Amantzaleen jokoak* Kulkiren eskutik, eta 5 Contra eta Skalariak taldeen kontzertuak. Barikua Barinatxe Txistu taldearen kalejirak iratzarriko du, meza nagusia gero, eta ondoren Uribe-Bazterra musika bandaren doinuak entzungai. Eta giro alaiari ondo eusteko, Ardoa Barrura fanfariak girotuko ditu kaleak. Arratsaldean Jon Zabalek hartuko du herria magia eta umorez betetzeko ardura. Gero, Bilboko Akordeoien Orkestra Sinfonikoaren musikaldia gozatzeko aukera egongo da, eta Lisker taldearen ber-

benagaz batera emango zaio amaiera bari-kuari. Asteburuan ere izango da non gozatu: surf txapelketa, txirrindularitza lasterketa, umeentzako jolasak... Hemen behean duzue astebururako egitaraua. m

Egitaraua

Uztailak 17, zapatua

- Karmengo Surf Txapelketa
- Ludoteka eta Jumping erraldoia
- Umeentzako lantegiak. 11:30-13:30
- Lehenengo urteko kadeteen txirrindularitza txapelketa. 16:30.
- Txappitel pailazoak. 19:00. (Urgitxieta)
- Guridiren El Caserio zarzuela ikuskitzuna. 20:30. (Urko)
- Arenal orkestragaz berbena. 23:30.

Uztailak 18, domeka

- Karmengo Surf Txapelketa
- Marmitako Txapelketa. 10:00. (Urko)
- Bizkaiko Txirrindularitza Txapelketa (Emakumeak). 16:30.
- Umeentzako bitsaren jaiak. 17:30.
- Gorritiren Show-a. 18:30.
- Los Txikis taldearen eskutik herri kanten jaialdia. 20:00. (Urgitxieta).

[sopelana]

Hondartzetako prezioak

Badirudi itsasoko urak baretu direla apur bat



Sopelanako hondartza

Sopelanako hondartzetako hareak harrotu zituen udalak hartu zuen erabakiak. Badirudi, urak bere onera etortzen hasi direla, oraindino alde guztiak erabakiak ados ez badaude ere. Udalak, ingurumena eta paisaia babesteko asmoagaz, Arrietara eta Atxabiribil hondartzetako parkinen prezioa 5 euroan jartzeko erabakia hartu zuen. Bestalde, Arrietara hondartzako inguruak oinezko eta bizikletari mugatzea erabaki zuen, hareatzatik 100 bat metrora jarritako barrera baten bitartez. Erabakiak galerna haizea ekarri zuen, eta inguru horietan lanean diharduten ostalariak, hainbat herritar eta surf-lariak erabakiaren kontra agertu ziren.

Udalak autobus zerbitzu bi ipini ditu: Larrabasterrako metro geltokitik Barinatxe eta Arrietara hondartzetara bat, eta Sopelanako metro geltokitik Atxabiribilera bestea. Orduro hiru bidaia egingo dituzte autobusok, eta bidaia bakoitzak 0,50 euro balio du. Herritarrek parkinerako sarrera doan edukiko dute, eskuratu ahalko duten txartel baten bidez. Bestetik, udala eta Euskal Herriko Surf Federazioa (EHSF) ados jarri dira Uribe Kostako surf-lari federatuek ere doan aparkatzeko txartela jaso dezaten. Baina ostalariek gutxienez gauetan barrera kentzeko eskatu diote udalari, eta honek ezekoa eman du. Azkenean, baretuko ete dira guztiz Sopelanako urak? m

LAIK

Taberna

Bentatxu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94.6760328

Karmengo
jai zoriontsuak
larrabasterratar
guztioi!!!

Instalazio elektrikoak

Electro LAIA

Larrialdi Zerbitzua 24 ordu
670 415 732

Konpromisorik gabeko aurrekontuak / komunitate, lantegien...
mantenimendua / etxebizitza, lonja, pabiloien erreformak /
bonba hidraulikoak / telefonía, ahots eta datuen sareak



- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. Sopelana
Tfnoa.: 946760266 - Email.: sopela@ikasola.net

4 bide

pinturak







Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

GAXT KLUB-EKO
TXARTELA UMEENTZAT

Berangoko udalak 0-14 urte bitartekoentzat txartel bat sortu du: Gaxt Klub-eko txartela. Berorrek onura politak ekarriko dizkie ume berangoztarrei, hala nola prezio merkeagoak, opariak, abantailak udalak antolatutako ekintzetan, e.a.. Dagoeneko 170 txartel egin dituzte. *Berango 2015 Plan Estrategikoaren* barruan dagoen ekimen honen heburua da Berangora bizitzera orain gutxi etorritako umeak, eta umeen bitartez gurasoak ere, berangoztarrakaz harremanean lotzea, berangoztar sentiaraztea. Lehenengo jarduera San Juanetan egin zuten eta 400 ume hurbildu ziren jaira. Irailerako irteera prestatzen dabilta Donostiara.

Harremanetarako: 94 668 11 79

AFRIKA ENTZUNGAI
UZTAILAREN 9AN

Afrika Bibang eta bere taldeak lehenengo diskoa aurkeztuko diete berangoztarrei uztailaren 9an, eta kontzertuaren aurretik Berangoko hiru musika taldek joko dute. Kontzertu hau euskara sustatzeko ekimenen artean antolatu du udalak. Kontzertua gaueko 22:00etarako dago iragarrita, eta Elexalden egin dute hitzordua.



Afrika Bibang

1866an Txakolina salgai
Berangoko Arrarte-erdikoa baserrian



Arrarte-erdikoa izena zeukan baserria, gaur egun, Pepatxune dugu

Gaur egun *Pepetxune* izenaz ezagutzen den baserrian txakolina saltzen zen garai batean. *Arrarte-erdikoa* izena zeukan baserriak antzina, eta gaur egun baserriaren ugazabak diren Celayatarrek esku-izkribu zahar batzuen bitartez jakin dute 1866an txakolingileak eta saltzaileak bizi zirela baserri horretan.

Arrarte-erdikoa zeukan izena orduan baserriak, esan dugun legez, eta gaur egun baserriaren goiko eta beheko baserriak, hurrenez hurren, *Arrarte-goikoa* eta *Arrarte-behekoa* dira. Celayatarrek azaldu digutenez, “*garai batean Pepatxu izeneko andra bat bizi izan ei zen Arrarte-erdikoa*

baserrian, eta geroztik Pepatxune legez ezagutzen da baserria”. Iturralde bidean dagoen baserria 1951n erosi zuten Felix Celaya eta Remigia Agirrek, gaurko ugazaben gurasoek.

Upeltegia eta saltzeko lekua
Esku-izkribu zaharrek adierazten dutenez, *Arrarte-erdikoa*-k 1866an upeltegia eta txakolina saltzeko lekua zeukan eta solairu bakarreko baserria zen (orain bi dauzka). Berangoko txakolingileen uza aspalditik dago dastagai, mahastiek antzinatik janzten dituzte Berangoko inguruak, baina gaur egun ez da txakolinik saltzen. m

Arantza Renteria > Plentziako Itsas Museoko zuzendaria
“Itsasgizonen bizimodua ezagutzeko aukera itzela da”



Argazkian, Arantza Renteria

Butroiko Plazentia Udal Museoko zuzendari Arantza Renteriak urtebete daralma lanean, eta 5 urte pasa dira Plentziako Itsas Museoa edota Butroiko Plazentia Museoa atek zabaldu zituenetik, Goienkaleko 25. zenbakian. Bi solairuko dorretxe karratua da museoa, zutik den Plentziako eraikinik zaharrena, Erdi Arokoa. Lehen, udaletxeak bertan zuen egoitza, ondoren gartzela legez erabili zen, orain dela 5 urtera arte udal liburutegia izan zen, eta 1999tik aurrera museoa da. Eraikinak armari bi dauzka: bata errege-erregin katalikoena, bestea eraikinaren jabe ohiarena, Martin Perez de Placencia (gero etxea herriari doan emango ziona). Bariku arratsaldetik domeka goizera arte dago zabalik, eta beste egun batzuetarako hitzorduak ere hartzen dituzte. Hala ere, Renteriak iragarri digunez: “*Ordutegia luzatzeko asmoa*

daukagu, martitzenetik barikuna goizez ere zabaltzea litzateke asmoa”. Bestalde, museoko web orrialde berria eratzen dabilzala ere aurreratu du.

Itsasoko historia ikusgai
Ontzien maketak, liburuak eta dokumentuak, adibidez: ontzien erregistroak, itsasketaren inguruko zenbait agiri, nabigazio mapak, merkataritzako gutunak, ontzien itsasbideak, tratatuak, argazkiak... Margoak eta argazkiak ere ikusgai daude, Plentziako marinelen edo Itsas Eskolako ikasle-enak. Horiek guztiak ikusteko dei egiten digu Renteriak: “*bertoko bati museoaren bitartez bere arbasoak zelan bizi izan ziren jakin eta ezagutu dezakeela esango nioke, eta gainontzekoei itsasgizonen bizimodua, bai eta Plentziako historia ere ezagutzeko aukera itzela dela*”. m

PRESTIGE-REN INGURUKO ERAKUSKETA ONTZIREN GELAN

Plentziako Ingurumen Gela edo Ontziren Gela zabalik dago dagoeneko irailaren 15era arte, eta hondartzako pasealekuaren alboan dauka egoitza. Eskaintza zabala prestatu dute aurten ere: erakusketak, ingurumenari buruzko zinea, naturaren inguruko dokumentalak, terraza ekologikoa... *Marea Negra* argazki erakusketa izango da ikusgai aurten, Colexio Profesional de Xornalistas de Galicia eta Burlanegra kolektiboak Prestige-ren zorigaitzaren inguruan egina.



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ

T: 94 676 07 15




Taberna Berni

Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493

Ajuria
taberna

Andrés Cortina 2

ALGORTA



jateko

- urdaitegia
- frutadenda
- elikagaiak

Amezti 4 -Tf.: 94 491 06 54
ALGORTA

cianoplan s.a.

Villa de Plentzia 6. zbk
Antiguo Golf - Getxo

tfnok: 944 64 90 87
944 64 86 91

http://www.cianoplan.es

global printers

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

...eta gainera, fitxategien imprimaketa!

HERRIETAKO JAIAK, BATAK
BESTEARI LEKUA EGINEZ

Euskal Herriko bazter ia guztietan jaietako zapiak lepotik noiz zintzilikatuko zain daude herritarrak. Herriren bateko jaiak amaitu eta alboko herrietan festetako suziria iziotuko dute, eta askotan eskualdeko herri bat baino gehiagotan aldi berean izaten dira jaiak. Barrikako San Juanen sua amatatu berri den honetan, sugar bat iziotuta geratu da inguruko hainbat herritako jaien garra piztu ahal izateko. Hona hemen gure eskualdeko udako jaien agendan azpimarratu beharreko datak: Karmengo jaiak uztailaren 16an Lemoizen (Armintza) eta Plentzian; Santa Mariñe jaiak uztailaren 20an Urdulizen; Madalenak uztailaren 22an Plentzian; Santiagoak uztailaren 25ean Gorlizen; Agirreko Andra Mariak abuztuaren 4an Gorlizen; Andra Mariak abuztuaren 15ean Lemoizen; San Antolinak irailaren 2an Plentzian, Andra Mariak irailaren 8an Urdulizen, eta Pilarrak Lemoizen (Andraka). Goxatzeko aukerak, beraz, ia nongura eta noizgura.



GORLIZ
Lirain abesbatzak disko bat kaleratu berri du



Argazkian, Lirain Abesbatza

Gorlizko Lirain eta Lirain txiki abesbatzek plazaratu berri dute Gorlizko herriari eskaini dioten 18 abestiko diskoa. Loli Igartuak zuzentzen duen abesbatza 1992an sortu zen, eta gaur egun buru duen Juan Manuel Goikoetxea izan zen, hain zuzen, sortzaileetako bat: *“Kultur Etxeak Santa Agedarako kantu-lehiaketa bat prestatu zuen, eta orduan pentsatu nuen adinez nagusi garenok berriro ere Santa Ageda abestearena-eta berreskuratu*

genezakeela: azkenean ez genuen abestu, baina ikusi nuen jendea prest zegoela abesbatza sortzeko, eta ordutik gaur arte”. Pragan, Vienan, Milanen, Torreviejna, Valentzian, Santiago de Compostelako katedralean eta abarretan abestu dute. Eliz abestiek, habanerek, euskal abestiek eta Gabon kanteak osatzen dute 10 euroan salgai egongo den diskoa. Uztailaren 10an Gorlizko elizan eskainiko dute diskaren aurkezpen kontzertua. m

aldai

TAPIZTEGIA

DEKORAZIOA

ERAKUSKETA

ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA

VASA

20^o ANIVERSARIO
URTEURRENA

AENOR

Empresa Registrada
ER-1891/2001

AENOR

Gestión Ambiental
CGM-02/006

KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

tel. 94 668 15 51

Taxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@euskalnet.net

Uztailak 9 - 25

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37 • Faxa: 94 491 58 31

ERAKUSKETAK

URDULIZ

► **Margo erakusketa.** Kultur Etxeak antolatutako lantegietako sorkuntzen erakusketa. Uztailaren 5etik 15era.

► **Egurra lantzeko eta Boliloen erakusketa.** Kultur Etxeak antolatutako lantegietako ikasleen sorkuntzak. Uztailaren 20tik 30era.

PLENTZIA

► **Carmen Bustinza-ren margolanak.** Goñi Portal kulturala. Uztailaren 1etik 15era.

► **Maria Pilar Sanz-en margolanak.** Goñi Portal kulturala. Uztailaren 16etik 30era.

GORLIZ

► **Ertibil erakusketa.** Erakustaretoa. Uztailaren 6tik 16ra.

► **Miguel Angel Morilloren arte erakusketa.** Erakustaretoa. Uztailaren 17tik 24ra arte.

ANTZERKIA

SOPELANA

► **Guridiren El Caserio.** Zarzuela. Urko polikiroldegian. Uztailaren 17an, zapatua. 20:30.

ZINEMA

PLENTZIA

► **Tarta de Fresa.** Haur zinema. Goñi Portala. Uztailak 17, zapatua. 17:30.

► **Pegado a ti.** Gazte zinema. Goñi Portala. Uztailak 24, zapatua. 18:00.

► **La Sonrisa de Mona Lisa.** Helduentzako zinema. Goñi Portala. Uztailak 16, barikua. 22:00.

► **Todo lo demas.** Helduentzako zinema. Goñi Portala. Uztailak 23, barikua. 22:00.

► **La Joven de la Perla.** Helduentzako zinema. Goñi Portala. Uztailak 30, barikua. 22:00.

URDULIZ

► **Super-Agente Cody Banks.** Haur zinema. Agirre Lehendakaria Plaza. Uztailak 13, martitzena. 10:30.

► **Buscando a Nemo.** Haur zinema. Agirre Lehendakaria Plaza. Uztailak 27, martitzena. 10:30.



► Uztailak 25

Paella egunerako osagaiak prest?

Paella-ontzia garbitu, olana hartu, osaigaiak zeintzuk izango diren pentsatu,... Paella eguna noiz helduko zain dabilta asko. Aurtten Itxas Argia taldeak antolatzen duen Paella Egunaren 49. aldia da. Urte bakarra falta da egun horren urrezko ezteiak ospatzeko, eta 50. urtemuga ospatzeko ekitaldi bereziak prestatzeko asmotan dabil Itxas Argia taldea. Baina lehenengo, aurtengorako paella-jana prestatu behar da, eta gogoan hartu, olanen eskaintza gutxi gora behera hilaren 20rako aurreikusten dutela Itxas-Argiakoek.

• **Non:** Aixerrotoako landetan • **Noiz:** hilak 25

MUSIKA

GORLIZ

► **Abesbatza.** Lirain txiki eta Lirain abesbatza, diska berriaren aurkezpena. Elizan. Uztailak 10, zapatua. 20:00.

► **Solistas de Moscu Kamara Orkresta.** “Concertino” piezaren entzunaldia. Elizan. Uztailak 17, zapatua. 20:00.

BERANGO

► **Afrika.** Herriko hainbat taldegaz batera Afrika eta bere taldearen kontzertua. Elexalden. Uztailak 9, barikua. 22:00.

LARRABASTERRA

► **5 Contra eta Skalariak taldeen kontzertuak.** Karmengo jaien barruan. Urgitxieta plaza. Uztailaren 15ean, eguena. 23:00.

► **Bilboko Akordeoi Orkresta Sinfonikoa.** Karmengo jaien barruan. Urko polikiroldegian. Uztailaren 16an, barikua. 20:30.

► **Lisker taldeagaz berbena.** Karmengo jaien barruan. Urgitxieta plazan. Uztailaren 16an, barikua. 23:30.

► **Arenal orkresta.** Karmengo jaien barruan. Urgitxieta plazan. Uztailaren 17an, zapatua. 23:30.

► **Los Txikis.** Karmengo jaien barruan. Urgitxieta plazan. Uztailaren 18an, domeka. 20:00.

BESTEAK

GETXO

► **XX. Nazioarteko Folk Jaialdia.** Itxartu taldea (Getxo), Poloniako eta Lituaniako dantza taldeak. Uztailaren 21etik 23ra. Biotz Alai plaza (Algorta). 22:00.

► **Belako Euskal Kostaldea gurutzaldi-estropada.** Abran. Uztailaren 14etik 18ra.

GORLIZ

► **Santiago Jaiak.** Uztailaren 23tik 27ra ospatuko dira jaiak.

SOPELANA

► **Dantzaldia.** Uribe Bazterra Musika Bandaren eskutik. Uztailaren 11an, domeka. 20:00.

PLENTZIA

► **Donostiako Aquarium-era irteera.** Uztailaren 14an, egueztena. Irteera 10:00etan. 6 euro.

► **Pozalaguako kobazulo eta El Karpin parkera bisita.** Uztailaren 23an, barikua. 10:00. 5 euro.

LARRABASTERRA

► **Magia eta umore ikuskizuna.** Jon Zabal ETBko azti ezagunaren eskutik. Uztailaren 16an, barikua. 19:30.

► **Txirindulari lasterketa.** Lehen urteko kadeteak. Uztailaren 17an, zapatua. 16:30.

► **Karmengo Surf txapelketa.** Asteburu osoan zehar, uztailaren 17 eta 18an. Arrietara.

► **Marmitako lehiaketa.** Urgitxieta Plazan. Uztailaren 18an, domeka. Hasiera ordua: 10:00etan.

namaika hide

- 1 Kafe Antzokia Bilbo
- 2 Kafe Antzokia Ondarroa
- 3 Ondarroako Arrigorri itsas ostatua
- 4 Algara konpartsa
- 5 Zaparrada Gaztegunea
- 6 Olgetan Umegunea
- 7 Elkartearen zerbitzu, ikastaro eta tailerrak
- 8 Bakaikuko etxea
- 9 Bilbo Hiria irratia 96.0 Fm
- 10 Zenbat Gara aldizkaria
- 11 Gara argitaletxea

San Vicente 2
4. solairua
48001
94 423 75 91

zenbat gara
elkartea

namaika



Alango auzokoak

San Juan ospatzeko ohitura ondo errotuta egon zen hainbat urtez Algortako Alango auzoan. Ohitura orain urte batzuk galdu bazen ere, ospakizun hau berreskuratzeko gogoak bizirik dirau. Eta hain zuzen ere, gurari hau aldarrikatzeko, jaialditxoak egin zen Alangoko plazan ekainaren 26an, “Petiso” getxoxtar ezaguna bultzatzaile nagusi zela. Hantxe omendu zituzten San Inazio eskolan irakasle ibilitakoak: Doña Blanca, Don Tirso, Doña Paca, Don Luciano...

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



LOS DE LA PLAZA DE ALANGO

- La concentración será el día 26 de Junio, repetición de San Juan a las 12 h en la Plaza de Alango para todos aquellos que hayan nacido, residido ó participado en alguno de los eventos que se han producido en Alango.
- La Zona del barrio comprende el círculo anterior desde el Casino, M^a Cristina, Miramar, Fueros, Arkotxa, Alangoeta, Alangobarri, Euskal Herria y Alango.
- Si mantienes algún contacto con los que están integrados en esta Zona y viven fuera, debes comunicarnos nuestra inquietud, e indicarnos los lugares donde pueden inscribirse para poder participar.
- Los lugares a los que puedes llamar para confirmar tu asistencia y la cantidad de comensales que asistirán contigo son:

- ✓ EL GURU: 94.491.10.53
- ✓ LA VENTA DE PRENSA DE ALANGO: 656.73.49.83
- ✓ DEGUSTACIÓN NAHIANA DE MALAS: 94.491.09.27
- ✓ BARBADO: 94.430.57.91
- ✓ MERCERÍA ELISABETH: 605.73.85.74
- ✓ BAR EGOKI: 94.430.40.78.

- El cierre de esta inscripción, será el día 21 de Junio.
- El costo de la comida será de unos 30 € según mercado, por los que deberás hacer un ingreso de 10 € por persona a la cuenta de la BBK: 2022010946 de la 22 ó en el lugar de inscripción.

Entre los actos que se celebrarán esta:
El merecido HOMENAJE a nuestra maestra D^a BLANCA OLAZAGOITIA Y RECORDAR al resto de los maestros de toda nuestra época: D. Dionisio AYARZA, D. Tirso Pérez de ALBENZ, D. José RAMÍREZ, D. Urbano GUERRA, D^a PACA, D^a Teresa, D^a Esperanza, D^a Águeda y a D^a María Jesús URIBARRI, y a las Monjitas de la Caridad que tan buena labor desarrollaron en el Colegio del Puerto y Asilo Municipal.

- También queremos dispensar un Gratísimo RECUERDO a Josetxu ECHEVARRIA, Ex – portero del Athletic y a D. Pablo MARQUINEZ, el tendero del barrio que tanta hambre quitó.
- Habrá una exposición de fotografías antiguas en la que también puedes participar cediendo las tuyas para escanearlas y devolverlas después, aunque sea para la exposición del próximo año.

Este llamamiento que hacemos a los de la Zona de Alango, también queremos hacerla extensiva a los de Neguri Languille, por haber tenido la suerte de tener como maestra y haberla tenido como vecina en su barrio durante parte de su vida, además de haber pertenecido algunos a la Banda de Cartón “LOSTANGORENOS”

La COMIDA esta solucionada, el lugar FO, depende únicamente de la cantidad de comensales que se apunten y la inclemencia del tiempo durante la última semana. Saludos.-

Hilabetetik gora da bainu-denboraldia hasita daukagula. Horrek, dakizuenez, hainbat aldaketa ekartzen du gure hondartzetara; zelanbait, “ofizialtasuna” ematen dio hondartzara joatea bezain gauza arruntari. Aldaketa horietako bat sorosleak dira. Eurak arduratuko dira, hilabete hauetan, hondartzazaleen segurtasunaz. Hainbeste bisitari hartzen duten Uribe Kostako hondartzetan badabil mordotxo bat, eta guk haiengana jo dugu, euren lana hobeto ezagutzeko asmoz. Ereagara joan gara, hain zuzen. Ez da hondartzarik jendetsuena, baina badauka berezitasun bat: bertan dago Bizkaiko hondartza guztien koordinazio-gunea.

Sorosleak

Hondartzazaleen zelatan

Testua: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

Zer egiten da?

Iaz, 186.885 lagun joan ziren Ereaga hondartzara, eta ehunka bider behar izan zuten sorosleen laguntza. Hain zuzen, 421 zauri, 207 traumatismo, eguzkiak eragindako 28 erredua, beste zerbaitek eragindako 28 erredua, itsas animaliek egindako 46 ziztada eta intsektuek egindako beste 47 sendatu ziren. Bestalde, sorosleek zazpi bider atera behar izan zuten nonor uretatik. Bostetan nekeagatik, behin korronteengatik eta beste behin ugerlariaren gaixotasunagatik. Alde horretatik, hondartza “lasaia” da Ereaga. Arrietara-Atxabiribilen, esaterako, 34 lagun atera zituzten uretatik iaz. Horietatik 27, korrontea zela eta.



Txar-txarra izan barik on-ona ez den egun horietakoa aukeratu dugu Ereagara joateko. Holan, ez da hain larria izango denbora tarte batez sorosle batzuk geureganatzea, euren beharra egiten utzi barik. Lagun bik hartu gaituzte: Koldo Larrazabal, Getxo osoko sorosleen koordinatzaileak, eta Mikel López Ereagan bigarren urtea daukan sorosle gazteak.

Zelakoa da soroslearen eguna? *“Hemen, Ereagan, koordinazio-gunea irekilea daukagu lehenengo egin beharra”,* diosku Lópezek. Ereaga da, izan ere, Bizkaiko hondartza guztiek osatutako sarearen muina. *“Oso larriak direnak izan ezik –Ertzantza, anbulantzia edo dena delakoa–, hondartza guztietako sorosleek guri egin behar dizkigute*

«Sorosle batek daukan lehenengo egin beharra bandera ipintzea da»

euren eskariak eta adierazpenak”, esplika digu Larrazabalek. Komunikabideetarako eta estatistikarako datu batzuk ere bertan jasotzen dira: hondartza bakoitzean zer koloreko bandera dagoen, esaterako.

Pertsona bat arduratzen da Ereagako koordinazio-guneaz, berez hondartzarako dauden beste bostak gain. Guztira, zortzi sorosle dira lan-taldean, baina txandaka egiten dute beharra. Egunero-egunero, hutsik egin barik egoten dira bertan, goizeko

11:00etatik arratsaldeko 7:00ak arte.

Lehenengo osteratxoa

Koordinazio-gunea irekita dago, bada. Zeintzuk dira hurrengo egitekoak? Hondartza guztietan bezala, bandera ipini behar da ezer baino lehen. Itsosoari begiratu, erabaki, eta bandera bere lekuan paratu. *“Gero osteratxoa egiten dugu hondartzatik, ekiteko behar den materiala daroagula, ea anazorik dagoen ikusteko. Ordu erdi emoten dugu horretan, gitxi gorabehera”,* diosku Mikel Lópezek.

Ia egun osoa dago aurretik, eta zelatan hasteko garaia da. Sorosle-egoitza, hemen, oso eskuman dago hondartzarekiko, eta ezkerreko alde da, hain zuzen, jende gehien

egoten dena, *“hareak gehien ere bertan dagoelako”.* Horregatik, jende gehien dagoen egunetan prismatikoak behar dira bertatik ondo ikusteko. Hala ere, egoitzatxo bat dago hondartzaren ezkerrean, eta bertan egoten dira sorosle bi. Bestela, hondartzatik paseoan. Bandera horia dagoenean, derrigorrezkoa da hondartzako egoitzatxoan bertan lagun bi egotea.

“Denari egoten gara adi, baina gure lehentasuna una da”, dioskue aho batez gure



Argazki sorta honetan Ereaga hondartzako sorosle taldea lanean

berbakideek. *“Beti egongo da harean gertatzen diren ezbeharrez ohartarazi gaitzakeenik”,* dio Lópezek, *“baina uretan bestelakoak dira kontuak. Sarri gertatzen da uretan arazoa daukana ez egotea oso hurbil”.* Zorionez, Ereaga lasaia da korronte eta abarrei dagokienez, eta erreskate gitxi egin behar izaten

besteena arriskuan ipintzen duelako. Dena dela, bandera gorria dagoenean sorosle bi egoten dira ur ertzean etengabea, jendeari ohartarazteko.

Hondartzan –Ereagan behintzat–, ez dago lanik gabeko egunik. Beti egoten da nor sendatu edo nori lagundu. Jende asko

«Zereginik arruntena, Ereagan, ebakidurengatiko sendaketak dira»

da uretan, Uribe Kostako beste hondartza batzuetan ez bezala.

Hondartzara joaten direnek, oro har, jaramon egiten diete. *“Guk ez daukagu eskumenik debekua betearazteko”,* dio Larrazabalek, *“ez eta zigorrik ezartzeko. Hori poliziari baino ez dagokio”.* Inoiz, haiei deitzea suertatzen da, norbaitek bere osasuna edo

doan egunetan, 20 sendaketa inguru egiten dituzte, eta guztira 30en bat ekintza. *“Arruntena ebakidurengatiko sendaketak dira”,* adierazi digu Lópezek, *“batez ere marea behera dagoenean. Haitz asko dago, eta jendea harekaz ebakitzen da”.* Aspertzeko denborarik ez, eta gogorik ere ez. Zeozergatik dira bolondreskoak Bizkaiko sorosleak. ^m

Soroslea izateko “ikasketak”

Soroslea izateko hainbat gauza egiten jakin behar da, noski. Bizkaian behintzat, 50na orduko ikastaro bi gainditu behar dituzte hondartzazaleak jagoten jardun ahal izateko. Bata, lehen sorospenak ikasteko; bestea, uretan erreskatea egiteko. *“Ez da uger egite hutsa”,* dio Koldo Larrazabalek.

«Ikastaro bi gainditu behar dira: lehen sorospenak eta erreskatea uretan»

Hori ere –uger, esan gura dugu– ederto egin behar dute, baina gainera *“persona bat eroaten eta geldirik egonarazten ikasi behar dute. Ez dute ikastaroa gainditzen 200 metro uger egiteagatik. Ikastaroan panpinak eroan behar dituzte uger egiten dabiltzan bitartean, eta ez panpinak bakarrik: pertsonak ere bai”.*

Ulertzekoa denez, sorosleak sasoi onean egon behar dira. Horregatik, 15 orduko ikastaro trinko bat egiten dute, asteakabu baten, bainu-denboraldi ofiziala hasi baino aste bat lehenago. *“Horrek, alde batetik, berriak ez direnak berziklatzeko balio du”,* azaldu du Larrazabalek, *“eta bestetik, soroslegaiak sasoi txarrean ez daudela egiaztatzeko. Urtarilean ikastaro bat egin izanak ez du berez ekartzen ekainean ondo egotea”.*



Untzirik handiena

Fatima Díez Garaigorta

Ibaizabaleko urak inoiz zeharkatu dituen untzirik handiena duzue argazkikoa. Gasa garraiatzeko eraiki zuten eta Iñigo Tapias dauka izena. Lehenengoz itsasorako bidea hartu zuen egunean Areetako kale batetik harrapatu zuen Fátima Díezen begirada zorrotzak.



[berbetan]

Alejandro Martinez de Ubago dauka izena sortzez, baina abizen arabarrak eta marketinga bat ez datozenez, norbaitek Alex Ubago ipini zion Gasteizen munduratu eta Donostian etxea daukan gazte honi. Bizi, antzezleku gainean bizi da, egun bakoitzean hiri desberdin batean. San Juan bezperan Algortako Ereaga hondartzan eman zuen kontzertua, eta guk ez genuen beragaz egoteko aukera alperrik galdu. Dagoeneko izar bihurtua da hogeita hiru urte besterik ez dituen Ubagok. Oso gazterik hasi zen abestiak konposatzen: hamabost urtegaz egin zuen lehen kantua. Lehen maketa, berriz, lehengusu baten grabaketa-gelan gauzatu zuen, eta ez musikan ospea lortzeko asmoz, neskalogunari oparitzeko baizik. Maketa hura belarri egokietara ailegatu zen, nonbait, eta horri zor dio Ubagok gaur daukana. Galdu duena ere bai. Elkarrizketa honi ipin diezaiokegun adjektiborik desegokiena, duda barik, “lasaia” da.

Alex Ubago

Musika bihotzetik

Testua: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

—Nahiko modu bitxian hasi zinen musika munduan...

—Bai, hara , asko hitz egin da nire hastapenez, maketa grabatu nuen lehenengo aldiaren benetako asmoa nire neskalogunari oparitzea zelako. Esan daiteke musika zaletasuna zela niretzat, eta ez nuela benetan sinisten inoiz inork profesional modura honetan jarduteko aukera emango zidanik. Eta hala izan zen: hasiera batean nire kontu pertsonala besterik ez zena entzun egin zuten nire managerra izango zenak lehenik, eta DRO konpainiak ondoren. Gerora asko puztu da istorio hori, baina egia da honekin guztiarekin nolabait topo egin nuela, bila joan gabe.

—Orduan, zuk ez zeneukan musikan jarduteko asmorik?

—Amets egiten nuen horrekin. Baina ez nuen uste inork aukera emango zidanik. Nik ez ditut urteak eman maketak hara-eta hona bidaltzen, ez dut pausu hori

eman behar izan. Zortea eduki dut, ez ditudalako urteak igaro behar izan nire aukera bilatzen; gauzak oso azkar joan dira, eta hamazortzi edo hemeretzi urte neuzkan DROrekin kontratua sinatu nuenean.

—Oso gaztea zara oraindik, hogeita hiru urte besterik ez dituzu eta. Zelan

“Ez nuen uste inork inoiz musikan jarduteko aukera emango zidanik”

moldatzen zara mundu honetan, denak zuk egiten duzunari adi, elkarrizketak, autografoak, argazkiak... ospea, azken batean?

—Ondo konpontzen naiz. Arraroa da, egia esanda, hasieran batez ere, oso aldaketa handia delako norberaren bizimodu-
duan. Baina uste dut guztiaz goza daitekeela norabidea galdu gabe, egoerak norbera gainditu gabe. Nire ustez, norberari

gehien gustatzen zaiona egiteko aukera edukitea da politena, eta horrekin batera datozen beste kontuak eramaten jakin behar da.

—Zure lana konposatzea eta abestea da. Gainerako guztirako langile mordo dago zure inguruan, bakoitzak oso zeregin jakina daukala. Zer heinetan dauka-

zu zuk zeresanik produkzio prozesuan?

—Nik ez dut den-dena egiten, hori begibistakoa da.. Hemen badago musika munduan urte asko lanean daraman jendea, eta nik ez diet esango nola egin behar dituzten gauzak. Baina bestetik, ikuskizunaren edo beste zerbaiten xehetasunen batekin bat ez banator, esan egiten dut, noski, eta alde horretatik askatasun handia daukat.



Ereagako antzezlekuaren alboan egin genion elkarrizketa Alex Ubagori; argazkian, noski, ez da ikusten –ezta entzuten ere– bertatik bertara zebilen fan mordoak >



Argazkiotan, Alex Ubago soinu-probak egiten eta bera ikustera hurreratu ziren zaleak

Izarren hautsa

Arratsaldeko 18:30etarako egin genuen hitzordua, Alex Ubago bezalako izar baten inguruan ibiltzen diren hamaika laguntzaileetako bategaz. Bidezpada, ordu laurden lehenago ailegatu ginen Ereagara, baina ordurako han zegoen fan mordo, antzezleku aurrean jesarrita. Berdin dio noiz joan, fanak beti lehenago ailegatzen dira. Antzezlekuan zebiltzan hamaika beharginetako bateri galdetu genion geure kontaktuaz —Aitor—, baina inork ez zuen ezagutzen. Itxaron behar.

Apurka-apurka, han eta hemen galdetuz, “sukalderaino” sartu ginen. Antzezleku atzeraino ailegatu, eta ia inork ea nor demontre ginen itaundu barik teknikari eta musikarien aldagelen ondoan jesartzea lortu genuen. Jende asko zebilen han, hara eta hona, denak presa itxuraz, baina guk bilatzen genuenaren arrastorik ez. Itxaronaldia arintzeko, eta egoeragaz bat zetorrelakoan, “me muelo por conocerte” abesten genuen behin eta berriro.

Azkenik informazio bat: ordu erdi berandu ailegatuko da. Aitorrek agertu barik jarraitzen zuen artean. Gitxika-gitxika, ia oharkabea, Alexen sinadura eta argazkia lortzeko itxaropenaz zetozen neska batzuk elkartu ziren gugaz, bertan egoteko baimena auskalo zelan lortuta.

Ordu erdia ordubete bihurtu zenean, eta inoiz Aitor delako bategaz berba egin genuen zalantzan jartzen hasita geundenean, izarra agertu zen, gazte, lirain. Gure txanda zelakoan hurbildu gin-

tzaizkion, baina jarraitzaileak zeuden aurretik. Sinadura eta argazki artean, zegoeneko ezagun genuen Aitorregaz elkarriketaren baldintzak negoziatu genituen. Ordu erdi asko jota, guk. Erdia, berak. Bale, ordu laurden, guk. Ez, hamar minutu, berak.

Izarra agurtu gura zuten hamaika lagun agurtu ondoren, Alex Ubago guretzat zen azkenean. Elkarriketa egin bitartean, Aitor metro bi eta erdira geneukan, zelatan. Gutxi falta da, adierazten genion keinuz. Zu lasai, hartu behar duzun debora, Ubagok guri, keinuz ere bai. Ordurako, antzezleku aurrean jesarrita zeuden fanek bazuten izarren berri eta, zebra taldeak sabanan bezala, hala hurbildu ziren gu geunden lekutik ahalik eta hurbilenera: saldoka. Elkarriketa erdia haien oihuen soinu errepikakorraren laguntzagaz egin genuen, baina atsegina izan zen, Ubago mutil atsegina delako. Mutil gazte atsegina, Aitor bezalakoek mugitzen duten munduan eroso. Beharbada gutaz ahaztuta egongo da honezkero. Beharbada sorbalda gainetik astindu beharreko hautsa —izarren hautsa— baino ez ginen izan, zelan edo halan luzatzen ahalegindu ginen hamar minutuz. Edo beharbada ez. The show must go on, eta ez dago denbora galtzerik. Ez da Ubagoren errua, noski, berak ez du mundu hau asmatu. Azkenik, alde egin genuen, fanek botatzen zuten garaxietakoren bat (“hautsaz” ziharduten, hain justu, lizunenek) guretzat izango zen itxaropenagaz. Ubagorentzat, egun arrunt bat baino ez.

—Musika mundu hau, gaur egun, hain-beste marketing egonda, ez dago lotuegia artistaren irudiagaz? Itxura fisikoa-gaz, esan gura dut...

—Askotan bai. Baina uste dut oraindik badaudela beren jarraitzaileak itxuraren bitartez baino musikaren bitartez erakart-

tia den, baina gaur egun hain erraza denez dohainik eskuratzea...

—Zelan definitzen duzu zeure musika? —Bihotzaren musika legez, musika zintzoa legez. Bihotzarena diodanean, ez dut esan nahi beti maitasuna denik gaia, bihotzetik ateratzen zaidala baizik. Kantu

“Bada musika entzutera, eta ez gorputz bat ikustera, doanik”

zen dituzten artistak. Ni neu, esate baterako, eta beste asko ere bai. Oraindik badaude kantuak entzutera, eta ez gorputz bat ikustera, joaten diren ikus-entzuleak.

—Disco piraten aurka agertu zara behin baino gehiagotan...

—Bai, jakina. Batzuetan, artistok pirate-

erromantiko asko ditut, baina beste gauza batzuei buruz idaztea ere gustatzen zait. Eguneroko gauza arruntez, alegia. Pop musika egiten dut; batzuetan balada dut gustuko, bestetan zerbait arintxoagoa, eta gustuko dut, baita ere —eta uste dut ikus-kizunean nabaritzen dela—, pop-rockera lerratzea pixka bat. Energia pixka bat

“Pirateoa? Ez da bidezkoa baten lanari esker beste batzuk aberastea”

oaren aurka azaltzen garenean, jendeak esaten du: ‘Noski, hauek zer esango dute?’. Askok pentsatzen dute: ‘Eurek diru asko irabazten dute, zer axola die?’ . Nik ez dut gustoko interpretazio hori, nik ere ulertzen ditudalako. Hogeita hiru urte dauzkat, eta badakit zer den Internet, badakit zer den disko bat bi euroren truk eroatea, eta jendearentzat disko iturri hori kentzea ‘putada’ handia dela. Hori guztia ulertzen dut. Baina ezin liteke, ez da bidezkoa, beste batzuek egindako lanari esker aberasten den jendea egotea. Eta onartzen dut jendeak disko asko eduki nahi izatea, eta diskoak pixka bat garestiak direla, baina diskoei ere balio handia- goa ematen hasi beharko zaie, ezta? Uste dut arteari ez zaiola ematen merezi duen balioa. Edonork, asteburuan irten eta sei, zortzi edo bederatzia euro ordaintzen ditu edari batengatik edozein diskotekatan, eta ez du ia horretaz pentsatzen. Edo pizza bat etxera eramatea eskatzen badu- zu... Gauza asko dira garestiak. Nik, azke- nean, ez dakit diskoa benetan hain gares-

ematea. Pop kantagile legez denifitu izan naute, eta nik bat egiten dut definizio horrekin.

—Noiz, non, zelan gustatzen zaizu kon- posatzea?

—Etxean nagoenean, batez ere. Astia daukadanean. Disco berriko ideia asko erre-

pidean sortu dira, edo hoteletan... Ez daukat hala egitea beste irtenbiderik, baina Donostian lasai nagoenean idazten dut gehien. Itsasoa hurbil egotea gustatzen zait. Eta batez ere gauez idazten dut, baina edozein momentutan etor dakidake gogo. Ez daukat disziplina handirik, inondik inora.

—Oker ez banago, harreman ona daukazue Donostiako modako musikariok: Amaia Montero, Mikel Erentxun, zu zeu...

—Bai, oso ona, egia esan. Oso ondo konpontzen naiz bai La Orejarekin bai Mikelekin. Haien izaeran gustukoan dudana jende xehea direla da; artista handiak izan arren, haiekin egonda bat-batean kaleko jende arruntarekin egiten duzu topo. Oso sentazio onak eduki ditut La Orejarekiko eta Mikelekiko, ezagutu nituen egunetik.

—Dagoeneko ikusi dugu Mikel Eren- txun euskarazko kantu batean parte hartzen. Inoiz zeuk hori egiteko asmorik daukazu?

—Ez dut baztertzen. Hala ere, nik euska- raz lau hitz baino ez dakizkit, ez dut men- peratzen. Eta euskaraz kantatzekotan, neuk egindako abestia kantatu nahi nuke. Neuk egin banezake poz handiagoa emango lidake, baina auskalo. Beharbada egunen batean... Zergatik ez? m





PLENTZIA

Aurten beruak

“San Juan suak, aurten beruak” esan gura izaten da hainbat euskal herritan ekainaren 23aren inguruan, San Juan santua bera baino zaharragoa den ohitura sutsu honi jarraipena ematen zaion bakoitzean. Baina ohitura guztiek legez, honek ere, aurrera egingo badu eta San Juan sua “berua” izango bada, tradizioaren indarra ez ezik herritar xumeen ahalegina eta lanerako gogoia ere behar ditu: orriotan ekarri dizkizuegu bistara gure eskualdeko herri eta auzo batzuetan umeei (eta ez hain umeei) San Juan bezperetan eginiko metaketa-lan alaiaren irudiak. Ikusten denez, gure bizimodu modernoan tresneria plastifikatua eta polimerizatua gero eta ugariago den arren, gure “erregai-ehiztariak” moldatu dira, zelan edo halan, su itxurosoagoa sortzen duten zurezko gaiak aurkitzeko.

Argazkiak: **Asier Mentxaka** eta **Bubu**



BARRIKA



LEIOA



GORLIZ



BARRIKA



ARRIGUNAGA



LEIOA



LEIOA



LEIOA




BERANGO



BERANGO



LEIOA



BARRIKA



SOPELANA



SOPELANA



ARRIGUNAGA



BERANGO



ZUBILLETA

zineeskola

Oskar Fernández

Zinema generoak (III)

Jarrai dezagun artikulutxo honen bidez hain emankorrak izan ziren genero batzuk ikusten. Gure begirada **guda aurkako** generoari zuzenduko diogu arreta handiz. Atal honetan hiru aipamen eredugarri egin behar ditugu nahi-taez: Lehenengo filma “Paths of glory” Stanley Kubrick maisu handiak 1957.urtean zuzendutakoa. (Irakurle maitea, pelikula hau ikusita ez baldin baduzu, zinemarekiko zor handia duzu), bigarrena “Johnny got his gun”, 1971. urtean Dalton Trumbok zuzendu zuen filma, oso istorio hunkigarri eta izugarria. Eta hirugarrena “Full metal jacket”, Stanley Kubrik jenio handiak 1987. urtean zuzendua. Aipa dezagun orain **gangsterren generoa**: nahi eta nahi ez Ameriketara joan behar dugu, han Francis Ford Coppola zuzendari ospetsuak trilogia bikaina eta erraldoia maisuki zuzendu bait-zuen: “The Godfather “ 1972.urtean egin zuen, urte bi geroago “Aitabitxia II”, eta 1990. urtean trilogia osatu zuen “Aitabitxia III”-rekin. Hirugarren atal honetan arlo sozial guztiei oso kritika zorrotza, sakona eta azkarra egiten die “Apocalipsis now” filma zuzendu zuen zinemagileak. Eta nork ez dauka bere erretina Monument Valley-ko ikuspegi zabal, handi eta ederrez beterik. **Wester generoa** dela eta diogu hau: John Ford zuzendariaren lana gogoratu behar dugu hemen, eta zuzendari honek egin zituen filme-tatik bi azpimarratu behar ditugu, batez ere: bata 1939. urtean zuzendu zuen “Stagecoach” edo “Diligentzia”, bigarrena 1956. urtean egindako “The searchers” edo “Basamortuko zentauroak”. Biak zinemaren historiako ehun film hobereenen artean kokaturik daude. 4

Film Laburrak sarean

Nontzeberri webgunean ikus daitezke Lekeitioko Zinema Bilerako filmak

Nontzeberri webguneak ikusgai ipini ditu Lekeitioko Zinema eta Bideo Bileran parte hartu zuten film laburrak. Kulturaren inguruko webgunea den Nontzeberri film laburrak zuzenean ikusteko zein ordenagailura ekartzeko aukera eskaintzen hasi da.

Ikusgai dauden filmok iaz eta orain dela urte bi Lekeitioko Zinema eta Bideo Bileran parte hartutako pelikulak dira. Guztira 8 dira Nontzeberri eskaintzen dituen filmak, 5 iazko bilerakoak eta beste hirurak 2002an emandakoak. Iazko

«Zortzi film labor sareratu ditu dagoeneko Nontzeberri weguneak»

ekitaldikoen artean bi profesionalak sortuak dira, eta gainontzeko hirurak zinemagile amateurrek eginikoak, hurrenez hurren: *Ibilera bare baten irudipena baino ez* (Iratxe Arana), *Negua* (Aitzol Aramaio), *Urbeltzak: Orosia* (Juan Miguel Gutierrez), *Xochitik Acatil* (Arantxa Gurmendi), eta *III* (Iñigo Lopez Castañeda). Horiez gain, ikusgai dauden 2002ko hiru filmak hauek dira: *Arkatx zinikoa*, *Ondarea* eta *Afganiar errefuxiatuak: miseriaren begiak*. Aurten Lekei-



www.nontzeberri.com/ikus/lekeitio/

tioko Zinema eta Bideo Bilerazazaroaren 18tik 20ra bitartean egingo da. Zinema zein bideo sorkuntzak igortzeko epea zabalik dago, eta lanok euskaraz eginak eta 30 minutu baino gutxiagoko iraupenekoak izan behar dute. m

Filmak

- *Ibilera bare baten irudipena baino ez* (Iratxe Arana)
- *Negua* (Aitzol Aramaio)
- *Urbeltzak: Orosia* (J.M. Gutierrez)
- *Xochitik Acatil* (A. Gurmendi)
- *III* (Iñigo Lopez Castañeda)
- *Arkatx zinikoa* (Andres Elizondo)
- *Ondarea* (Itziar Fagoaga)
- *Afganiar errefuxiatuak: miseriaren begiak* (A. Zatika eta M.Ambrosio)

Ez galdu > “I am Dina”



Film honek Herbjorg Wassmo norvegiar emakume idazleak idatzitako *Dina* eleberrian dauka oinarria. 1989. urtean argitaratu zuen liburua eta berehala arrakasta itzela lortu zuen, “bestseller” bilakatzeraino. Eleberri hau trilogia batean banaturik dago. Filmaren zuzendaria Ole Bornedal idazle eta antzerki zuzendaria da. Danimarkan jaio zen 1959an. Hau da zuzentzen duen hirugarren film luzea. Drama honek garatzen duen istorioak hainbat hamarkada hartzen ditu, protagonista umetxo bat denetik pertsona heldua izan arte. Dina txikia zenean nahi gabe istripu larri bat sorrarazten du eta bere amak bizitza galtzen du; aitak, etsipenean erorita, alaba bere bihotzetik baztertzen du eta Dina basatituirik ibiliko da tutorea ipintzen dioten arte. Urteak geroago, emakume gazte ederra bihurturik, familiako lagunarekin ezkonduko da. Bizitzak beste norabide bat hartuko dio orduan.



Argazkian, taldeko kide batzuk

Txalaparta jaia martxan da Festa antolatu du irailaren 25erako UKTSTk


Ttakunaren kolpeen inguruan batu ziren garai batean, eta kolpeon tartean sortu dute UKTST (Uribe Kostan Txalapartaren Sustapenerako Taldea). Zazpi bat kidek osatzen dute taldea, eta beste txalapartariak zein txalapartaren alde lan egiteko prest dagoen edonork zabal-zabalik dauzka ateak. Txalaparta Jaia prestatzen dabilta eskualdean txalaparta ezagutarazteko, eskualdeko txalapartariak batzeko eta herria esnarazteko. Irailaren 25ean egingo da txalapartaren aldeko festa, eta ospakizun hau asteburu osoan zehar egingo den Euskal Jaiaren alde bat bakarrik da, UKTSTk

eta Egizuk batera antolatuko dutena. Txalaparta Jaian sei gune jarriko dituzte Algortako Metro Geltoki inguruan, eta ttakunen doinuek girotuko dute goiza bertan. Eguerdian Herri Bazkaria izango da San Nikolas plazan, eta bapo jan ostean bertsolariak, eta zelan ez, txalapartaren erritmoak girotuko dute arratsaldea. Dantza garaikidea izango da txalaparta doinuen ostean, Ttakunpa taldearen kontzertua, musika elektronikoa... baina irailera arte itxaron behar! m

Harremanetarako: 94 491 43 57
arrate_eiz@hotmail.com

diskoak

To Tulsa and back
J. J. Cale
EMI



Zortzi urteko urrunaldiaren ostean, Oklahomako musikagile eta gitarra-jole aparta itzuli zaigu. Disko berri hau grabatzeko Tulsa jaioterrirako bidea hartu zuen, eta 60 urtetik gorako musikariz inguratu zen (J.J. Cale-k berak 66 dauzka), aspaldiko sasoietan bezala. Abestietan bere ohiko doinu lasaigarriak entzun ditzakegu; hitzetan, ordea, ingurumena eta politika ditu mintzagai.

Hopes and fears
Keane
Universal



Tom Chaplin, Tim Rice-Oxley eta Richard Hughes britainiarrek ezohiko hirukotea osatu dute: ahotsa, pianoa eta bateria nahikoa izan dute emozioz beteta dauden 11 abesti egiteko. Eta gitarra bakar bat ere erabili barik. Keane taldearen lehenengo disko honetan (Europan salduena izaten dabilena), Travis-en sasoirik onena eta Coldplay-ren alderik epikoena batu egin dira.

Kukuma
Kukuma
Elkar



Kukuma Bizkaiko folk talde gaztea dugu, eta lehenengo diskoa besapean daukatela datozkigu. Lan honetan festarako proposamen berriak topatuko ditugu; izan ere, erritmo beroak, soinu zeltak eta gure tradizioko musika tresnak uztartu dituzte trebeziaz eta oreka handiz. Intuizioa lagun, Kukumakoek lehen entzunaldian sartzen diren abestiak egin dituzte.

Diskoa >

Ttakunpa



Txalaparta eta afrikar perkusioaren doinuak uztartu ditu Ttakunpa taldeak bere lehenengo diskoan. Egurrezko eta marmolezko

txalapartak, djembea, dunduna eta sanbagha moduko musika tresnek bat egiten dute Ttakuparen diskoan. 7 kantuz osatzen da diskoa: euskal kantuak, txalaparta hutsezkoak, Afrikako herri kantuak, edota afrikar zein euskal doinuen nahasketaren ondorio direnak daude entzugai. Horrez gain, Zestoako Amalda abesbatzako kideen ahotsen laguntza ere izan dute. 2003ko azaroan grabatu zuten diskoa Hernialdeko Txepe estudioan.

www.ttakunpa.com

Urteurrena >

Gernikako Arbola

1854ean abestu zuen Iparragirrek lehenengo aldiz Euskal Herrian *Gernika Arbola* kantua. San Antonio eguna zen eta Urkiolako landak jendez gainezka zeuden. Alabaina, ez zen Iparragirrek Gernikako arbolari eskainitako abestia kantatzen zuen lehengo biderra. Madrileko Cafe San Luis-en 1853an bildutakoen aurrean abestu zuten estreinekoz urretxuarrak arbola bedeinkatuaren aldeko kanta. 150. urteurren honetan, euskaldunon artean hain maitatua den arbolak jarri beza fruituak ematen, arbola zaharren haziak sortu bitza kimu berriak, eta mundura zabaldu bitez bere adarrak.

esaterik**badut**

Esti Ezkerra

Egunerokoa (xx)

Nortasun kontuak (III)

Kureishik elkarriketa batean aitortu zuenez, “El cuerpo” aitari egindako omenaldia besterik ez da. Zahartzarora iritsita-koan, purrustada batean ibiltzen zen hura, gorputzak gehiagorako eman ez baina burmuinak aurrera egin nahi zuelako. 50 urte bete dituen Kureishi hasi da ulertzen aitaren ezinegona, baina ez du haren ikuspuntuarekin bat egiten: bere ustez, norberak erabakitzen du nola sentitu nahi den, zahar ala gazte. Eta garrantzitsuagoa dena, bestelako gorputz batean bigarren bizitza bat izateko aukera edukita ere, batek ezingo luke bere nortasuna alde batera utzi. Azken batean, urteen poderioz joan gara geure nortasuna zehazten. Haren parte dira izan ditugun esperientziak, eza-gutu dugun jendea, egin ditugun hankasartze zein oker guztiak. Eta bizitza urteak luzatuta ere, nortasun hori aberasten joango ginateke, baina ez galtzen. Zeren nortasunaz aldatzeko abiapuntura jo beharko genuke, hots, jaiotze unera, edo bestela burmuin garbiketa bat egin. Orduan ez ginateke gu izango, baizik eta beste norbait. Puntu horretara iritsita, zera galdetzen dio bere buruari idazleak: sustrai pakistandarrik eduki izan ez banu, idazten ari naizena idatziko nuke? Are gehiago, idazlea izango nintzateke? Auskalo. Dena den, orain argi dauka bere gogoeta gehienak bere zirkunstantzien emaitza direla. Azken batean, une honetan ez litzateke nortasunaren inguruan gora eta behera ibiliko, txikitari arrazakeriak mehatxaturiko giro batean hazi izan ez balitz, neba-arreben guriaren kontra idazketarekin tematu zen aita eduki izan ez balu (nahiz eta egiteko horrekin arrakasta handirik eduki ez)... 4

Izenen unibertsoan barna

Anjel Lertxundik “Konpainia noblean” liburua argitaratu du Alberdaniarekin

Geriatrigo batean dagoen gizon bat idazle lanetan hasi da. Hartu ditu ahozko literaturan, kantuetan, elezaharretan eta zenbait liburutik irakurri edo entzundako izenak, eta haien istorioak idazteari ekin dio. Ez du lan zientifikorik egin nahi, ezta etnografia zein historia lanik osatu nahi ere. Asmo literario hutsez heldu dio egiteko horri, eta, modu horretan, Juana Bixenta Olabe, Txanton Piperri, Maria Solt, Aker Beltz eta beste hainbat pertsonaia, tradizionalak zein gaurkoak, oroimenaren eta ahanzturaren gainean egiten duen gogoetaren protagonista bihurtuko ditu. *Letrak kalekantoitik* liburutik kanpo material asko geratu zitzaioela eta

«Zientzia berezia asmatu du Anjelek: onomastikalogia»

kontu horri bueltak emanaz erabaki zuen Anjel Lertxundik *Konpainia noblean* idaztea. Alabaina, ez da goizetik gauera egindako lana. Aitzitik, urte batzuk eman behar izan ditu Oriokoak liburuan agertzen diren ahozko literaturari buruzko erreferentziak eta datuak aztertzen. Ondoren, *Konpainia noblean* izango zena atontzeari ekin zionean, laupabost bertsio osatu zituen harik eta lan



Argazkian, Anjel Lertxundi

definitibora iritsi zen arte. “*Izenekin lanean jardun naiz, eta izenik ez duen bakarra narratzailea da*”, dio Lertxundik. “*Nor zen abestiko Andre Madalen? Zer oihartzun ekartzen dizkigu? Hain zuzen, oihartzunen joko bat da liburu hau. Andre Madalen berria eraiki du narratzaileak, eta hura bezalako izenen konpainia noblean ibiltzeko gonbidapena da lana*”. Aurkezpen saioan Koldo Izagirrek azaldu zuenez, “*zientzia berezia asmatu du Anjelek: onomastikalogia. Ordena alfabetikoan eman ditu liburuko narrazioak, eta hari mehe batek josita daude*”. m

liburuak



Burua txoriz beterik
Iñaki Irasizabal
Elkar

60 urte betetzeko bidean dagoen irakasle alargun bat, haren seme-alabak, euren bikotekide eta haurrak, bakoitzaren gora-beherak eta arazoak... Idazle durangarrak bizitza erretratatzeko jakin du bere laugarren liburu honetan, pintzelkada finez eta giza harremanen ezagutza sakona erakutsiz.



Zirkulua
Andoni Urzelai
Erein

Zerbitzu sekretuek ETArekin behin betiko amaitu gura dute. *Big bang!* izeneko operazioak Euskal Herriko kaleetan izua zabaltzea dauka helburu. Hortxe dauka abiapuntua Urzelairen bigarren eleberriak, eta irakurleari paparretik heldu eta ikusi gura ez lukeen mundu batera eroaten du.

Irrati librea >

Radio Tropical FM 102.9

Musika latinoaz eta erritmo tropikalez gainezka **24 orduko** eskaintza daukan irratia

Radio Tropical 2001eko Gabonetan jaio zen, eta erritmo tropikalez eta musika latinoaz eraikitako sehaska aukeratu zuen jaioleku. Urtebete zeukala utzi zion musika bakarrik eskaintzeari, eta 2002ko martxoan hasi ziren lehengo esatariak uhinetan kulunkatzen. Urte bi igaro dira, eta Radio Tropicalerako zuzendari Jose Angel Robles-ek gogoan dauka irratiaren sortzeko ideien hazia zelan bihurtu den fruitu: “*ase barik zegoen beharizan bat ikusi genuen, zeuden irratiek asetzen ez zutena. Gureak hasieran latino jendearen artean eduki zuen arrakasta, musika-*

«Bizkaia osoan entzun daiteke eta oraintsu Araba osora hedatzea lortu dute»

gaz bat egin zutelako berehala. Proiektua edukiakaz betetzen joan da apurka, eta bigarren gonakada egin du orain, euskal herritarrek ere bere egin dituzte-eta doinu latinoak”.

Radio Tropical gizarterako helburu garrantzitsu batez jaio zen Roblesen esanetan: “*Norantza biko gizarteratzea dugu helburu: euskal gizarteak latino jendea berekin hartzea, bai eta latinoak euskal gizartearen barneratzea. Horregatik uste dugu irratiaren kulturen arteko topagune dela*”. 24 orduko progra-



José Angel Robles irratiaren zuzendaria

mazioa dauka irratiak, eta salsa, merenge, bachata, ballenato zein pop latinoaren doinuak entzuteaz gain, albistegiak eta aholkularitza juridikoaren inguruko saioak bezalako beste hainbat irratsaio daude entzungai. Bizkaia osoan entzun daiteke (102.9 eta 95.7), eta oraintsu Arabara ere hedatzea lortu dute (89.9). m

EITB > sareko informazio katea

Eusko Jaurilaritzak internet bidezko informazio kate bat garatzeko baimena eman dio EITBri, ekain amaieran hasita. EITBk eta Jaurilaritzak urtero sinatzen duten Programa Kontratuan aurreikusten ez zen egitasmoa bada ere, proiektua garatzea baimendu du Jaurilaritzak. Beraz, Euskal Irrati Telebista enpresa publikoak informazioa etengabe eskainiko lukeen internet bidezko kate bat sortzeko aukera dauka. TVE eta CNN+ telebista kateek dagoeneko informazioa eten barik eskaintzen duen kate bana kudeatzen dute, baina garatze bidean dagoen EITB kate berria internet bidez bakarrik eskuratu ahaliko litzateke. Kate horrek eguneko 24 orduetan albistegi zerbitzua eskainiko luke, hau da, albisteak eta informazioaren etengabea eskaintza jarriko luke eskuragai.



aldizkaria etxean jaso nahi baduzu
94 491 13 37

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kuba
Arnedi 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48900 Getxo
uk@aldizkaria.biz / tel.: 94 491 13 37 / fax: 94 491 58 31

uhinakFM

Getxo Irratia87.6
Radio Euskadi92.4
Euskadi Gaztea94.7
Bilbo Hiria Irratia96.0
Tas-Tas Irratia97.0
eitb irratiak100.1
Bizkaia Irratia102.6
Koska Irratia104.1
Euskadi Irratia104.4
Pititako Irratia107.0
Gorliz Irratia107.8

Getxoko Andra Mari
Zerbitzu Estazioba

Txartel hau
aurkezten baduzu
%50
merkeago
garbituko dizugu
autoa!!!!

Bilbo-Plentzia errepidea 18. km
Getxo / Tel: 94 430 15 00

irabazi UKrekin

MUGI
FISIOTERAPIA ZENTRUA

x Tendinitis Esgintzeak
x Erreuma x Kiroleko

deitzen duenak
masaje bat debalde
irabaziko du!!

94 491 13 37
uk@aldizkaria.biz

Mendieta 2, SOPELA 17 67

94 491 13 37

[sarean]

Nazioarteko deiak doan

VoIP-en bidez ordenadoreen arteko telefono deiak egin daitezke zentimo bat **ordaindu barik**

Udako bidaiak direla eta, askok edukiko duzue maitetxoren bat atzerrian, zuekin hitz egiteko zain. Eta, halakoetan aukera bi daukazue: imo mantentzea gure sakela ireki barik edo, zuzenean, soldata Telefónica zein Euskaltelera helbideratzea, azken batean, bertara joango dira-eta, egingo ditugun dei guztiak ikusirik. Ba al dago atzerkira modu merkean deitzenek? Bai noski, eta erantzuna (nola ez) Interneten aurkituko dugu.

Sarean ez dago distantziarik. Berdin dio email bat Japoniara edo Urdulizera bidaltzea, beraz, zergatik ez da orain arte gauza bera egin telefono deiekin? Ba, Interneteko egitura sortu zutenean garrantzitsuena datuak helaraztea zelako, ez zenbat denbora emango zuten bidaiari. Eta, telefono dei batean, bizpahiru segundoko atzerapena galdera eta erantzunaren artean izugarri deserosoa delako.

Gaur, zorionez gauzak aldatu egin dira.

Banda zabaleko loturak ugaritzeari (kablea, zein ADSLkoak) eta Internet beraren hedapenari esker, Skype bezalako programak agertu dira (www.skype.com). Ordenadoreen artean deiak bideratzen ditu doaneko eta publizitaterik gabeko programa honek, jakina, beti ere mikrofono eta kaskoz hornituri baldin badaukagu ordenadorea guk esandakoa jaso ahal izateko.

Programa honen sortzaileek badakite zer den Internet hankaz gora jartzea, eurek sortu baitzuten Kazaa abestiak elkartrukatzeko sistema arrakastatsua. Orain arte, 15 milioi pertsonak jaitsi dute internet bitartez hitz egiteko programa hau, eta horrela jarraituz gero, baliteke hemendik urte gutxira nazioarteko deien negozioa asko murriztea gure telefonia konpainia maiteei. Inork pena sentituko du irabaziko ez duten diruagatik? Guk ez, behintzat :-)

webgida

BEGIETATIK

><http://begietatik.blogspot.com/>
Euskarazko webgune dotorea oraingoan dakarkiguna. Egia esan, hizkuntzka garrantzi gutxi du bertan, fotoblog bat da eta. Ez dakizula zer den fotoblog bat? Ba, argazkiak (eta iruzkin txikiak) batzen dituen webgunea, modu kronologikoan ordenatua: azkeneko argazkiak lehenengo postuetan agertzen dira. 'Begietatik' Patxi deituriko argazkilari euskaldun baten asmakizuna da. Ez ezazue galdu.



Sarean aurkitu ditugu > Denetarik



Itziar Laka > hizkuntzalaria

“Ez dakigu oraindik burmuinean zertan bereizten diren elebidunak eta elebakarrak”



Itziar Laka, Bilboko etxean

Bilbon bizi da Itziar Laka algortar hizkuntzalaria. Hizkuntzalaria, eta ez filologoa; Lakak berak gogorarazi digunez, ez dira-eta gauza bera. AEBetan hainbat urtean bizi ostean, 1995ean itzuli zen Euskal Herrira. Orain, EHU irakasle ibiltzeaz gain, hizkuntzaren gaineko ikerketak egiten dituen talde baten burua da. Hain zuzen, gure buru barruan hizkuntzaren prozesuak zelan gertatzen diren aztertzen dabilta.

—Zer da hizkuntzalari bat?

—Gauza asko izan daiteke. Nik neuk hizkuntza zer den eta nola funtzionatzen duen ikertzen dut. Argitu nahi nuke, adibidez, zer den elebakarra edo eleanitza izatea burmuinari dagokionez.

—Eta zer ikertzen duzue zehazki?

—Lehenengo, hizkuntz patologiak. Badaude istripua eduki eta burmuineko kalteen ondorioz hitz egiteko gaitasuna galtzen dutenak, gainerakoan ondo egonda ere. Horrekin hasi ginen lan egiten, eta gero neu-

roirudiekin hasi ginen, hau da, makina batzuen bitartez, burmuinean zer aktibatzen den eta zer ez jakiten. Ume txikiekin lan egiteko proiektu bat ere badaukagu...

—Elebakar eta elebidunen arteko bereizketak aipatu duzu. Zertan da hori?

—Ez dakigu. Adibidez: kanario bat ezin da elebiduna izan. Kanarioen kanta daki, eta kitto. Jakinez jaiotzen da. Beste txori mota batzuk biologikoki kantatzeko gauza dira baina ez daukate aurrez ezarritako kanturik. Inguruko kanta entzunez ikasten dute. Bai-

na horiek ere ez dira elebidunak. Gizakiok ez gara halakoak, gure hizkuntza bestelakoa da. —Zergatik?

—Badakigu, pertsona elebakarrekin nahikoa lan egin delako, hizkuntzak burmuinaren alde honetan [buruaren ezkerreko alde adierazi du] dauden esparru bitan garatzen direla, besteak beste. Eta badakigu elebakarretan esparru bi horietako batean daudela fonologia, gramatika... eta besteak lotzen dituela hitzen esanahiak hitzen formekin. Jakin nahi duguna zera da: Elebidun edo eleanitzengan zelan antolatzen dira gauza

«Umeek, jaiotzean, munduko hizkuntza guztietako soinuak dakizkite»

horiek? Nola banatzen dira gramatika bi horiek? Noraino daude banatuta, edo elkartuta? Eta gero beste kontu bat dago: aro kritikoa.

—Zer da hori?

—Hizkuntza burmuinean garatzen den denbora. Baina ez dugu oso ondo ezagutzen oraindik. Gaur egun badakigu gutxi gorabehera nerabearoa igarota burmuinean garatu ez duzun hizkuntza ez zela gerora ikasteko gauza izango.

—Baina jendeak helduaroan ikasten ditu!

—Hitz bakanak baino ez.

—Hizkuntz gaitasunagaz jaiotzen bagara, ume txiki bat gai da edozein hizkuntzako soinu bereziak ikasteko?

—Are gehiago, egin egiten ditu. Lehen uste zen umeak “tonto” jaio eta inguruko entzunda ikasten dituztela soinuak, baina alderantziz da: jaiotzean hizkuntza guztietako soinuak egiten dakite, eta hilabeteak baino ez dauzkatala inguruan entzuten ez dutena baztertuz doaz. Nahikoa da kuman grabatzea horretaz konturatzeko. m

Juan Mari Zelaia > harakina

“Ganadun asuntu ez dau bapere ondo”



Argazkian, Juan Mari Zelaia

Juan Mari Zelaia 54 urteko berangoztarra da. 14 urtegar harakintzan hasi zen beharrean; ganadu-hiltzaile izan zen hasieran eta harakina horren ostean. Areetan daukan dendan hartu gintuen eta beragaz eduki genuen berbeta gai horren ingurukoa izan zen; baserritarren egoera txarraz ohartzeko aukera eman zigun honek.

—Berangokoa zara, ezta Juan Mari?
—Jaiotze bixi, ahal badot hil artetik, niretzako herri polita da eta nire gurasok eta danak bixi in gare han. Asko kanbia da, oiñ herri guztiek handik eiten direz, konstrukzioa, danatarikoa.
—Noiz hartu zenuen haragitegia?
—Hogetabi urte eingo dotaz hemen ya. Hau baño lehen, nire ofizio ixan zen matarife, eon nintzen hamaka urten beharren Getxoko Ayuntamentuko mataderon. Gero haren osten “Herriko”n, Algortan “Eroski” ixen baño lehen “Herriko” zan; ta okelen asunto-ta neuk eroate neun dana. Gero, “Herriko”n osten, hemen; hogetabi urte eingo doguz diziembren.

Honen aparte bere dekot baserri bat

ganadugaz Bakion, han bere badauz berrogei buru, ta holan, behar ta behar. Hara asten hiru bider-edo yoten naz, martitzenatan, eguenatan ta zapatuten edo domekatan. Hango ganadu da arraza ona; batzuek zaintzen dodaz bixitzerako ta besten gehienak hilteko, loditu ta hiltzen direz.
—Zure ganadua edukitzea merezi du?
—Ez, lo ke pasa ke gusta iten dat, bazoaz kontaten hemetik eta hara yotea, gasoline, ta hau ta beste ta gastuek hor dekozenak ganaduek, gaur egun ez da... niri gustaten dat eta bueno. Baia ganadun asuntu ez dau bapere ondo; baserritarrentzako dau oso txarto. Ez da pagaten, ta pentzuek gorantza doiez, nekazari lotzen dire zaharrenak, nire edadekotik

gorantzako; gaztek ez deure beharrik in gure baserritan ze ez dau merezi ze edozein lekun pagaten dotze gehiau; ta baserriko beharra gogorra da, han ez dao ez zapaturik ez eta domekarik. Barririk ez dator atzetik, ez da ikusten dirurik. Okele

“Ha edo hori beti euki behar dozu ze jente badator erosketak iten, ta zuk ez badekozu, albokoak aukiten dau”

dau prezio ez dakit zenbat urten atzerago koan ta pentzuek gorantza doiez... Gero saldu be ez da iten askorik, karnizeritan ez da saltzen, lehen etzetan eiten zan yanaria gehiau, eiten zan gisau edo hau edo beste ta ya oiñ etzeetan bere ez da lehengo lez.
—Haragitik aparte beste produktu gehiago saltzen dituzu, konpetentzia kontua da hori?
—Es ke txarkuteriko asuntu be beti sartu behar dozu, ha edo hori beti euki behar dozu ze jente badator erosketak iten ta zuk ez badekozu albokoak aukiten dau, ondoena da bertan euki, beste leku batera yon ez iteko. Por lo menos eiten du aha legiñe eukiteko jenero hobeena, labelako, ordaindu garestiau baia...
—Eta supermerkatuakaz konpetitu leike?
—Konpetitzeko horrekaz, in behar du jeneroaz, esan gure da, ba jenero onagaz ta ganadu onakaz; hori da gure arma. Gaur ganadu on bat eiten badozu ba biher hobia ta etzi hobia, beti yon behar zare “a mas”. Ostantzen, supermerkatukaz ezin da konpetidu. Gero kalitate berdina ez da, alde handi dau; nik badaroaz berrogei urte okelen gora-beheran, hamalau urtegar hasi nintzen beharren. m

Esakere “Emoiozu gatz horri!”



Askotan esaten dogu ez dala iñor ikisite yaioten, dana apurke-apurke ikisten goazela mundu honetan, baia seguru danok behin baiño gehiagoten lotu garala harritute, agoa zabalik, ikusikera ume batzuk zer egiteko kapaz direzen, guk ahalegin itzela eginte bere antzekorik egingo ez geunken bitarten. Zer esan lei horrelau momentu baten? Zabalik dekun agoa zer esateko erabili? Ba hautxe: “Emoiozu gatz!”

I.Gamindek baturiko esakera bat dozue hau: “Urdulizeko berbak eta bizimodu” liburun topako dozue.

Gurberbakea

BERBA JATOR BATZUK (IX)

Testua: Xabi Bilbao

Berbakere 34en eta 39n gure izenondo edo adjektibo batzuk ikusi genduzen, gure parajeko euskeran gauzak eta pertsonak ZELAU(K) -Zelako(ak)- direzen esateko erabilten direzenak. Gaur horregaz kontugez segiduko dogu apur bet. Hemen doaz, ba, beste izenondo batzuk:

• **gaza:** zeozter, gahienatan jatekori, gatz falta dakonen esaten da *gaza* dala edo daule. Gatz lar dekonen, oster, *gazi* daule esaten da.

—*Probáizu ensalade eta bótaotsezu gatz apur bet gaza báda.*

• **gatz:** aurreko berban gatz aitetu dogu, eta hamen dekozue horregaz nahasta behar ez dan berba bat, Euskal Herriko mendebaleko euskeran sano zabaldute daune, zeozter erraza ez dala esateko.

—*Gatxa da hónen kánpotarron berbákere ulértute... baia zuk berba iten dózunen bere, ezta lar erraz báztuten.*

• **gixájo/e:** on-ona, onegi dan personan ganera esaten da, *gixájo* gizona bada eta *gixáje* andrazko bada. Honen kontrako esateko, nonor *eleméntu ona* dala esaten da sarri.

—*Zénbet behar ein eun hak! Há ixen zan gixájo! Seméalabak óstera elementu ónak urten dautse!*

• **gosekil:** txarto bizi dana, ezer barik, kasik yatekorik berez.

—*Hor bizi da ondiño etze zaharran, txakur gosekil bátzuk baño eztekozela lagun.*

• **itzel, itzelezko:** persone, gauza edo ekitntze handia-handia dala esateko erabilten da.

—*Auto txarto apárkata itxi dau egun duztin eta itzelezko isune imin dautze udaltzáñak.*

—*Bob Beamonek sáltn itzela iñeun Méjíkoko olinpiadatan, ikératute lotu ziren dának.*

I aki Bitxitegia

OMEGA, LONGINES ETA TAGHEUER
AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte plazaT: 4302345

Algorta

BEROGAILU ETA ITURGINTZA



T: 430 53

Sarrikobaso 15

Errotalde ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO



GIZONENTZA -
KO MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T:

Mar a Jes s

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA

ALBEkumeak Bat, bi... **hiru!**

Urte hasieran Erromoko Eskoletako 6. mailakoak hartu genituen hizpide. Berriro ere bueltatu gara orain. Argazkian 5.mailakoak dauzkazue, Anaren gelakoak, hain zuzen ere. Lau hilabete eskas daramatzate ikasten, baina erakutsi digute Erromon bada-goela etorkizunik.

Testua: **Nahikari Ayo** / Argazkia: **A. Mentxaka**

Hasieran esan dugun bezala, Erromon gaude berriro ere. Komeriak pasa zituen gure argazkilariak denak taldean jartzeko: batak goian nahi zuela, besteak ez dakit noren ondoan, ... zoratzeko modukoa! Baina ageri denez, argazkia egin egin zen.

Otsailean hasi ziren bertsoen kontu guztiak ikasten. Nire azalpenak adi-adi entzun dituzte, bai eta era guztietako galderak egin ere. Baten batek arazoak eduki ditu koplak osatzerakoan, silabak kontatzerakoan, oinak bilatzerakoan...

Baina ez ditugu soilik ariketak egin. Eskolako azken egunean ALBEko gazteak entzun genituen kantuan eskolako liburutegian. Saio ederra eskaini ziguten Arratek, Maialenek eta Peruk. Batzuek



Erromoko Eskoletako 5. mailako bertsolaritza-taldea

harrituta begiratzen zieten, ez zuten sinesten bertsoak bat-batekoak zirenik. Gozatu egin zuten bertso-saioan. Unerik ederrena, bertsolariak eurekin puntuka sartzen hasi zirenean izan zen. Barre algara itzelak egin zituzten. Saioa amaitutakoan aukera edu-

ki zuten bertsolariei galderak egiteko. ALBEko gazteen bidez ikusi zuten posiblea dela bertsolaria izatea, eta hauek animatu egin zituzten ikasleak bertso-eskolara joaten. Badakizue: bertso-eskolako ateak zabal-zabalik dauzkazue! m

«Unerik ederrena bertsolariak eurekin sartzen hasi zirenean izan zen»

ALBEko gaztetxoak



Peru Vidal

TXIKITIK HANDIRA

Lehenengo puntua emanda

Kurtsoa bukatuta hasi dira jaiak, eta betetzen hasi dira nire nahiak. Orain hasiko dira gau luze alaiak, nahiz-ta klaseak izan luze eta zailak.

Lau oinak emanda

Ikasten egon gara ari eta **ari**, klase denotan denok isilik ta **adi**. Amaiera heldu da ta hori **nabari**, orain ibiliko naiz jairik jai **kantari**.

Azken puntua emanda

Kurtsoa hasi zen irailean ta egin gendun aurrera, ikasten egon gara askotan klase guztia batera. Hainbeste sasi egin ostean jai egitea hobe da, **asko ikasi egin dugunez orain goazen goatzera**.



INGELESEK

ingelesez
irakurtzen dituzte
eguneko berriak

A Smelly Flower From a Refined Family

By CAROL KAESUK YOON

After more than 180 years of puzzling, scientists say they have solved the mystery of the evolutionary origins of the plant that produces the biggest flower on earth. Researchers now say the bizarre rafflesia—whose blossoms can measure nearly one meter across and were described by the Swedish explorer Eric Mjoberg as having “a penetrating smell more repulsive than any buffalo carcass in an advanced state of decomposition”—actually sprang from the gentle group of plants that includes poinsettias, violets and passionflowers.

“It was a journey of discovery,” said Barkman, a zoologist at the University of

University who was the lead author of the paper, published online last month in The Proceedings of the National Academy of Sciences. “Some people have thought it was related to some other big smelly flowers.”

Rafflesia (pronounced ra-FLEE-zhuh) are nothing if not strange. These plants not only make large and rank-smelling flowers, but they are also parasites. So unlike nearly every other plant, they have no leaves and no green tissue for capturing sunlight to make their own food through photosynthesis.

Instead, in their home in the rainforests of Southeast Asia, rafflesias live by tapping into the roots of nearby trees.

ESPAINOLEK

espainolez
irakurtzen dituzte
eguneko berriak

► Cuatro personas fueron detenidas tras nueve horas de disturbios

AGENCIAS. SYDNEY

Las autoridades australianas pidieron ayer calma a la población aborigen tras la violencia del fin de semana en Sydney, que se saldó con cerca de medio centenar de policías heridos y al menos cuatro detenciones.

El lugar de los hechos, el barrio de Redfern, con una importante población aborigen, amaneció ayer con enormes banderas pintadas en las paredes, símbolo de los derechos de los indígenas australianos, mientras algunos

agentes del orden que duró nueve horas.

Condolencias

Thomas Hickey, de 17 años, murió el domingo a consecuencia de la herida producida por una vara metálica que, supuestamente, se clavó el sábado por la noche en una persecución con la Policía por también al parecer, montar en bicicleta sin casco protector.

El jefe del Gobierno del Estado de Nueva Gales del Sur, el gobernador Mike Baird, expresó sus condolencias por la muerte de Hickey.

FRANTSESEK

frantsesez
irakurtzen dituzte
eguneko berriak

de l'histoire du XX^e siècle

BERLIN

de notre époque spéciale. Trois coureurs de fond du cinéma d'auteur international se sont joints, dans la dernière ligne droite de la compétition berlinoise, au peloton: Ken Loach (84 ans), Theo Angelopoulos (69 ans) et Eric Rohmer (84 ans). Le premier, fidèle à une méthode désormais éprouvée, marie l'actualité sociale au romanesque dans *Ae Fond Kios*, dont le sujet tourne autour d'une alliance

problématique localisée à Glasgow. Celle de Kasim, un jeune Pakistanais issu d'une famille musulmane pratiquante, et d'une jeune femme d'origine arménienne.

volonté de pérenniser l'œuvre, mais témoignant d'un constant accommodement à l'ambiguïté du réel et à la marche du temps, le cinéma d'Eric Rohmer accouche aujourd'hui d'un film vertigineux et intriguant, intitulé *Triple agent*.

Le film, situé dans l'entre-deux guerres, met en scène, en adossant un fait divers de l'époque, une non élucidée d'un espionnage russe réfugié en France. Les images d'actualité et les commentaires filandresques de l'époque sont intégrés dans le récit.

EUSKALDUNOK ERE EUSKARAZ IRAKURTZEN DITUGU EGUNEKO BERRIAK



Egin zaitez harpidedun:
943 30 43 45
harpidetza@berria.info

HARPIDEDUNEN ABANTAILAK

1. Kioskoko prezioa baino %9 merkeago
2. Banaketa doan: etxean, lantokian...
3. Harpidedunaren Kioskoan zozketak eta opariak
4. Promozioetan abantailak

Euskaldunok behar dugun **berria**



gaizka escudero / villabotas-ekoa

Marmitakoa

Hegaluze edo bonitoaren sasoia gainean daukagu. Leku garrantzitsua betetzen du arrain honek gure sukaldaritzan; tomatearekin presta daiteke, kipulagaz plantxan... edo eta marmitan: hau da, marmitakoa. Hortik dator kio, hain zuzen ere, plater gozo honi izena.

Lehenengo fumet bat, hau da, arrain salda bat prestatuko dugu etxean dauzkagun barazkiekin (azenarioa, berakata, piperra... norberak daukanarekin), hegaluze zatitxo batekin eta honen arantzekin, eta gatzarekin bota behar zaio, jakina. Beste lapiko edo marmita batean kipula txikitua (asko), piper berdea eta txorizo piperra su apalean ipini kipula bigundu arte (erre barik). Ondoren, patata kraskatu zatiak bota (nik pimentoi apur bat botatzen diot), eta aurretik prestatu dugun fumet hori irakiten dagoela ere bai. Hau guztia su ertainean eduki patata egin arte. Nahi badugu, tomate egosi zati batzuk (azala eta hazi barik) bota ditzakegu: horrela egiten badugu, beste bost minutu eduki behar dugu lapikoa sutan. Ondoren lapikoa sutatik kendu eta hegaluze zatiak (patata zatien tamainakoak) sartu lapikoan hauek egosi arte (hiru minutu). m



itsaso arana / jolastoki-koa

Udarako

ardoak eta beste edari batzuk

Uda, eta berarekin batera beroa eta hezetasuna heltzen direnean, atseginagoak egiten zaizkigu ardo freskoak eta arinagoak. Uda kanpoan pasatzeko asmoa baldin badaukagu, komenigarria eta gainera ohitura ona ere bada bertako edariak probatzea. Herrialde guztiek dute euren edari freskoa. Esaterako, Asturiasen sagardoa; gurean txakolina; Andaluzian, *manzanilla*, *finoa* edota *barbadillo*; Galizian, *albariño* edo *ribeiro*, eta abar. Zerrenda amaigabea da. Esaera zaharrak dioenez, gorostian gorosti eta Donostian Donosti.

Bestetik, kaba, berez hotza denez, oso erraz edaten da; udan, gainera, alaigarria ere bada.

Ardo beltza edateari uzteko asmorik ez daukatenean edozein jatorri izendapeneko urteko ardoa edan dezakete, apur bat fresko edan daiteke eta. Kriantzak ez dira astunak eta edatera gonbidatzen dute.

Jan aurretik, hau da, aperitibo moduan, apur bat ahaztuta dauden ohiko sifoi ardoa edo *vermoutha* har daitezke, gure ahosabaiak beti eskertuko ditu.

Hala ere, beroari aurre egiteko onena, norberari on egiten dioten edariak hartzea da beti.

Neurriz edan eta uda on! m



La kala taberna

Gura beste errazio eta kazolatxo



Argazkian, tabernako neskak

Sopelanan bada kazolatxo gozoak dasatzeko lekurik. Metro geltokiaren ondoren dagoen La Kala taberna dugu horren adibide. Bertan gazteak zein adinekoak elkartzeko dira, giro alai, beti ere.

Goizetan pintxo gozoak har daitezke. Eskaintza zabala dago, baina denen artean, barazkiez egindako "La Torre" izenekoak eta patata tortillak dira arrakastatsuenak. Arrautzetatutako pintxo asko ere prestatzen dituzte eta asteakabuetan mokadu bereziagoak lantzen ahalegintzen dira.

Horrez gain, arratsalde edo gau partean, errazio eta kazolatxo ugari har daitezke: hamarratza, tigreak, etxeko arrautza frijituak, tomateagaz, txipiroiak, kipulagaz, makailu-

nahaskia, gazta edo iberiko taulatxoak, mairu-pintxoak, tomate entsaladak...

Mónica Conde eta Alicia Oñate dira tabernaren arduradunak eta eurak dabilta barran zein sukaldean; hala ere, beti daukate familia eta lagunak laguntza; Jacinto Oñatek, adibidez, sukaldari beharrrak ere egiten ditu astean zehar.

2000eko martxoan zabaldu zituzten ateak eta dagoeneko txiki gelditu zaiela uste dute; izan ere, aurrerantzean, lokala handitu eta bazkari merkeak ere emateko asmoa dute. m

LA KALA
Sertutxa 5, Sopelana
Telefonoa: 94 676 32 54



amesti 7^{SL}

[eraikuntzak]

[etxeetako berrikuntzak]

[gremioen koordinaketa]

Kasune 9 • Tel./Fax: 94 431 98 06
48990 ALGORTA

**KURKUDI
LIBURUDENDA**

**Euskarazko
irakurgai**

Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA
T: 944 913 402

Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?

*herriko pintxorik
onenak ditugu
etorri eta probatu!!*

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

Norte jatetxea



adituak gara
makailo eta
kazolatxoak
prestatzen

Bilbo-Plentzia errepidea
Elexalde 9, Barrika - Tlf: 94 677 30 09

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9
T: 491 14 87
48990 NEGURI

KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B
(sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 GETXO



**ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!**

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA



prentsa ¥ aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO



BATIZ KRISTALDEGIA

- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

OLATXO

altzariak
dekorazio-opariak

Andres Larrazabal, 11
AREETA
T. : 94 464 89 94

Juan Bautista Zabala, 5
ALGORTA
T. : 94 491 13 94

VILLABOTAS JATETXEA



Menu merke eta bariatuak
Espezialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

[horoskopoa]



URA
t

(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Zaldi lasterketetan diru apur bat ira-
baztea ez da zaila; hori bai, aberasteko
beste modu batzuk topatu. Apurka-
apurka maitemindu egin zara. Eta
orain zer? Zure bihotzeko azukre-
koskorriari esango diozu? Bai? Ez?



OTSOA
t

(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Harria baino gogorragoa daukazu
burua: denek esan zizuten ez egiteko,
eta hala ere, zuk gai zinela frogatu
behar zenuen, ezta? Lankideagaz
serio berba egin behar duzu, eta ara-
zoak lehenbailehen konpondu.



ADARRA
t

(Otsailak 19 martxoak 20)
Betiko kontuakaz joaten bazara, beti-
ko erantzuna jasoko duzu; hobe
zenuke adimena astindu. Ilargiari
askotan begiraten diozu, baina ilar-
gira ez duzu joaterik; eskura dauka-
zuna desiratu, eta bestea ahaztu.



AITZURRA
t

(Martxoak 21 apirilak 19)
Ahuntzaren gauerdiko eztula zela esan
zenuen, eta dagoeneko zeure portaera
aldatzeko gauza izan da. Eguneroko-
tasunean galdu zara, *Aitzurra*, eta biko-
tekidea ohean harritzeko gaitasuna
galdu duzu.



HOSTOA
t

(Apirilak 20 maiatzak 19)
Zikoizkeriak ez dizu lagunik ekarriko.
Txanponak jarri dantzan, eta lagunak
inguruan ikusiko dituzu barra-barra.
Izarrei begira geratzen zara etengabe:
haien distira zureganatzeko itxaropena
al daukazu, bada, *Hostoa*?



EGUZKIA
t

(Maiatzak 20 ekainak 18)
Gauza gehiegi batera egitea gorrotatu
egiten duzu, eta azkenaldian, halakoak
egokitu zaizkizu. Negar egitea ona dela
diote, barruko atsekabeak botatzeko.
Baina hala jarraituz gero, uholdeak
izango dira.



GARIA
t

(Ekainak 19 uztailak 18)
Zure urtebetetzea dela-eta, ez zoazela
beharrera? Aurpegia behar da!
Dagoeneko ez zara haurra, eta urtebetet-
zeak ez dira hain garrantzitsuak. Zure
bikotekidearen nahi guztiak betetzen
dituzu azkar-azkar; eta hark, zeureak
betetzen al ditu?



LASTOA
t

(Uztailak 19 abuztuak 17)
Ondo portatzen bazara, agian oparit-
xo bat izango duzu. Zer den?
Auskalo! Saiatzen zaren arren, orain-
dik ez zara ondo moldatzen amodio
kontuetan. Batek daki, hemendik 20
urtera beharbada...



IRATZEA
t

(Abuztuak 18 irailak 16)
Zer moduz joan da parranda? Ez duzula
etekin handirik atera? Zer espero
zenuen, bada, itxura horregaz?
Haragijale amorratua zaitugu, baina
arraina ere goxoa da; dastatu beharko
zenuke, baduzu garaia-eta.



META
t

(Irailak 17 urriak 16)
Zer moduz moldatzen zara auto berria-
gaz? Ez zarela ohitzen? Lasai, egun gut-
xiko kontua izango da. Zure lankidea
badabil apurka-apurka ikasten; zortea
izanez gero, hemendik hilabete batzue-
tara ondo egingo du lan.



HAZIA
t

(Urriak 17 azaroak 15)
Mendi buelta ematea oso atsegina
duzu, baina azkenaldi honetan bela-
rra ikusten ere lanak dituzu.
Txakurrei ez zaie beldurrik izan
behar; hozka egiteko arriskua beldu-
rraren arabera da, ez al zenekien?



NEGUA
t

(Azaroak 16 abenduak 20)
Burugogorra zarela ezin da ukatu, eta bat-
zuetan arrazoia zure alde dago, baina hala-
koetan hobe duzu isilik egotea.
Adimentsua zinela zioten irakasleek eskola
garaian, eta orain berriz, ohean adimena
falta zaizula esaten dizu bikotekideak.




mungia

oKINDegia


Algortan badaukagu
artisaunen ogia
izen eta jatorriz
da “ogi mungia”.

Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez
dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA



HITZ GURUTZATUAK



Ezker eskuin

1. Industriak eraldatzen dituen gaiak. 2. Jausiak. Letra grekoa. 3. Hartuemanak. 4. Euskal Herri hegoaldeko ibaia. Estimua handiko zur. 5. Nagoela. Zah., zakur. 6. Nork pluralaren arabera atzizkia. ... Robles, Lapurdiko txiste-kontalaria. Bat. 7. Enea. Bizkaieraz, pikeak. 8. Gauza. Saudi Arabiako hiriburua. Lehen bokala. 9. Zero. Gipuzkeraz, gara. Ardi, hitz elkarketan. 10. Arratseko otordu. Landu, apaindu.

Goitik behera

1. Lehenbizikoa. 2. Ebazpean, deliberoa. Euskal alfabetoko letra madarikatua. 3. Horkoari. Letoniako hiriburua. 4. Iparraldean, esaiozue. Erbioaren sinbolo kimikoa. 5. Ba..., haiei banu. Edateko gogo. 6. Animalia konkordun. Kasik. 7. Kalitua, hila. Oxigenoa. 8. Iodoa. Nafarroako ibilgailuetan. Niri, zuen. 9. Nafarroako herria. Bokala. Radona. Kokoriko jarri.

Soluzioak									
U	D	N	O		I	H	A	F	A
T	R	A		V	R				O
A		D		R	I			G	A
K		I		U		E		N	
I		Z	T	U	G	U		K	E
H	O		V	L	E	Z		A	N
O	N	A	B	E		O	B	R	E
K	N	A	M	E	R	E	A	R	H
O	R		K		O	R	I	E	R
K		I	A		G	N	E	H	L

asmatu eta irabazi > Argia aldizkariaren opariak



Nor da?

- Robert Nesta zuen egiazko izena
- Reggae-ren erregetzat dute askok
- 36 urte zituela hil zen minbizia jota

> Aurrekoaren erantzuna: Iban Mayo

> Irabazlea: **Oskar Fernandez (Getxo) ***

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz / faxa: 94 491 58 31

Argia astekariaren biru hilabeteko barpidetza doan



1500. urteko Europako maparen lamina

www.argia.com



JOSEBA BUENOK UTZITAKO ARGAZKIA

Getxoko zahar-etxe edo “asiloaren” alde, 1959

Areetako Gobela futbol zelaian urtero jokatzen zuten garai hartan elkarren aurka “arrantzaleek” eta “ehiztariak”. Zehatzago esateko, arrantzaleek ehiztarien aurka edo arrantzaleek eta ehiztariak Athletic Club, Getxo... taldeen aurka. Dena dela, alkandora dotoreez gain, azpimarratu behar da oinetakoen kalitate ona, gaur egungo jokalarien botak baino askoz gogorragoak eta hobeak ziren eta; hori bai, oso garestiak ziren Inglaterratik ekarritako oinatakook.

Jende asko joaten zen partida hau ikustera, bai Getxotik bai inguruko herrietatik etorrita. Eta horretan badu zeresanik urte askoan Juanito Gardezabal moduko arbitro ospetsu bat ekarri izanak; nazioarteko arbitrorik onenetakoa zen.

Partida honetan bildutako dirua Getxoko nagusien etxearentzako izaten zen. Eta honekin lotutako pasadizu polit bat: partida jokatu zen egun berean jokalariek bildutako dirua nagusien etxera eroan zuten eta gainera bazkaria zerbitu zieten aitite-amamei. m

Zutunik: Txomin Acedo, Eulogio Cristobal, Rafa Padro, Gonzalo Bergaretxe, Pepe Arrizabalaga “Fiebre”, Enri Montano.

Makurtuta: Jose Montano, “Mentxakita”, Joseba Bueno “Kotxebas”, Manu Idarraga, Valen Pomposo.



gure posta elektroniko berria

uk@aldizkaria.biz

UK Uribe Kostako Aldizkaria

[aitormenak]

ANABEL ARRAIZA > aktorea, aurkezlea eta abeslaria

“Min handia eginez gero, ez dut bigarren aukerarik ematen”



Definitu ezazu zeure burua berba bitan. Burugogorra eta biziagia.
Zein animaliagaz zatoz bat? Katuak ez ditut batere gustuko, baina beraiekin bat natorrela esanen nuke. Zergatik ote?...
Zein liburu gustatuko litzaizuke idaztea? Gure ama hizkuntzaren bizitzari buruzko bat. Hori bai, bukaera eder eta zoragarri batekin!
Eta zein filman egingo zenuke protagonistaren papera? Protagonistaren papera? Non sinatu behar da?
Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien? Izugarri miresten ditut nire gurasoak.
Aitortu dezakezun bizio bat. Garai batean, erretzea eta azazkalak jatea, baina utzi ditut dagoeneko. Orain... puntokruza. (Barreak)
Oporretara joateko lekurik aproposena. Familiatz gozatzeko leku aproposa bada, berdin zait nora joan.
Zer hutsegite ez duzu sekula barkatzen? Gauza gehienak barka daitezkeela pentsatzen duen horietakoa naiz, baina arrazoirik gabe min handia eginez gero, ez dut bigarren aukerarik ematen.
Zer janzten duzu lo egiteko? Ezer gutxi. Asko jota, kamiseta zahar bat.
Ezin zaitezke bizi... Maitasunik gabe.
Zer gordetzen duzu sakeletan? Poltsa batean eramaten ditut gauzak. Baina autoan erromes batek emandako harri berezi bat daramat. Zorte ona ematen didalakoa nago, eta fede handia diot.
Zer berri gustatuko litzaizuke entzutea albistegi batean? Nafarroako euskara egoera normalean dagoela, inongo trabarik gabe.
Ohitura txarren bat... Iratzargailua behin eta berriro itzali. Ez dut sekula ikasiko lehenengoan itzaltzen eta pertsonen moduan ohetik jaikitzen.
Zertan gustatuko litzaizuke haragitzea? Etxean dugun txakurran. Zer sentituko du? Zer pentsatuko du gutaz?...
Zein da gehien errepikatzen zaizun ametsa? Azkenaldian, alaba erditzen ari naizela amesten dut. Jaioa eta guzti ikusten dut, baina ez naiz bere aurpegia ikusteko gai.
Noiz egin zenuen negar azkeneko aldiz? Atzo! Erraz egiten dut negar.
Zure azken erokeria. Etxe bat eroatea. Ordaintzen bukatuko al dugu?

LABURREAN— Batzuetan azkarregi egiten ditu gauzak, “eta askotan egindakoaz damutu ere bai”. Inguruan maitasuna sentitu beharra dauka, eta oso sentibera dugu: “Tontakeri batengatik bada ere, sarritan negar egiten dut”. Irailaren batean 29 urte beteko dituen Anabel Arraizak aitortu digunez, “nire bizitzan barkatu gabeko hutsegiteak esku batekin konta daitezke”. Nafar honek benetan curriculum luzea dauka, ia denetarik egin du-eta ikuskizun munduan: *lone, sube al cielo* film luzearen protagonista izan zen, zortzi urte eman zituen *Goenkale* teleailean, *Colón* garbigarriaren iragarki bat egin zuen 2000n, Triki Ta Ke taldeagaz disko bi grabatu ditu, bikoizketan ere ibilitakoa da, denboraldi bi daroaz Xabier Euskitzeren “sorginen” artean... Eta Anabelen hurrengo proiektua zein izango ete da? Ama izatea: abuztuan neskato bat izango du. Zorionak!

